



***LEHEN HEZKUNTZAN ANIZTASUNAREN
TRATAERARI HELTZEKO ORIENTABIDEAK***

**Curriculuma Eratzeko
eta Irakasleen Prestakuntzarako Institutua**

Dokumentu hau osatu duen lantaldea:

- Koordinatzailea:
 - . José Luis Tranche García
- Laguntzaileak:
 - . Ángel de Carlos García
 - . Trinidad Rubio Carcedo

AURKEZPENA

Berezitasuna, hots, “Bereziak izatea” gizakion berezko ezaguarriak delarik, gure gizartearen nolakotasuna, eta era berean hezkuntza sistemarena, da.

Ikuspuntu honetatik, aniztasuna eta bere hezkuntza erantzunak, erronka bat suposatzen du, holan bada, aipatutako desafio horri, aurre egin beharko zaio, eskolarizatutako ikaslego osoari kalitatezko hezkuntza eskaintza egiteko.

Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza honek, muinbakar eta aniztasunaren trataeraren printzipioak bereak eginez; irakasleak heterogenotasun horri ahalik eta erantzun egokiena eman diezaion, gogoeta, eztabaida eta erabakitze prozesuak erraztu ditzakeen zenbait baliabide ikastetxeetara helarazteari interesgarria deritzo.

Lehen hezkuntzan aniztasunaren trataerari heltzeko orientabide hauetan esparru teoriko-praktiko bat planteiatzen da, non alde batetik, gaiaren ulermen eta bereganatze eginkizunak errazteko zenbait elementu ematen dira; eta bestetik, zentru zein gela maila, ikaslegoaren behar eta eskakizunei hezkuntza eskuharmena egokitzeko, proposamen ezberdinak eskaintzen dira.

Edurne Gumuzio Añibarro

PEDAGOGI BERRIKUNTZARAKO ZUZENDARIA

ANIZTASUNAREN TRATAERARI BURUZKO ORIENTABIDEAK

1.- Aniztasuna: gizarteko eta eskolako errealitatea. Ikasgeletako aniztasunaren erakusgarriak.

- . Gizarteko eta eskolako errealitatea
- . LOGSE
 - muinbakarra
 - integratzailea
- . Aniztasunaren erakusgarriak

2.- Aniztasunari erantzuteko printzipioak.

3.- Aniztasunaren trataera curriculumean.

- 3.1. Curriculumaren planteamendu orokorrean
- 3.2. Curriculumaren zehaztaperen-maila desberdinetan
- 3.3. ICP lantzerakoan aniztasunari erantzuteko kontuan izan behar diren irizpideak
- 3.4. Ikasgelaren Programazioa diseinatu eta praktikan jartzerakoan aniztasunari erantzuteko kontuan izan behar diren irizpideak
- 3.5. Curriculum-egokitzapenak

4.- Aniztasunari erantzungo dion hezkuntzako esku-hartzea burutzeko iradokizunak.

- 4.1. Irakaslearen eginbeharrez
- 4.2. Ikuskera orohartzaileaz
- 4.3. Irakaskuntza-ikaskuntza iharduerez
- 4.4. Lankidetzazko ikaskuntzaz
- 4.5. Kideen arteko ikaskuntzaz
- 4.6. Ikasgelaren antolamenduaz

5.- Unitate didaktiko baten adibide gisakoa eta ikasle-taldearen ezaugarrien arabera egin daitezkeen aldaketak.

6.- Bibliografia.

1.- ANIZTASUNA: GIZARTEKO ETA ESKOLAKO ERREALITATEA. **IKASGELETAKO ANIZTASUNAREN ERAKUSGARRIAK.**

Berezitasuna, hots, "bereziak izatea", gizakion berezko ezaugarria da eta, hortaz, edozein gizartek duen bereizgarri amankomun eta objektiboa. Trebetasun nahiz adimengaitasun bereziak izatea, sexu, kultura nahiz sinismen desberdinak izatea mota askotako ondorioak dakartzaten errealitateak dira.

Hezkuntza-testuingurua gizartearen antzeko mikrokosmoa dela esan dezakegu eta, hala izanik, aniztasuna agerikoa da bertan. Arreta apur bat jarritz gero, Hezkuntza-elkartea osatzen duten elementu guztiek, hau da, familia, irakasle, ikasle eta abarrek interes, motibazio, igurikapen, trebetasun, gaitasun, gustu etab. desberdinak dituztela ohartuko gara.

Huts egiteko inongo beldurrik gabe, beraz, berdinak diren ikastetxe bi ez daudela esan dezakegu. Hezkuntza-iharduna burutzen den testuinguruak, sortutako lan-dinamikak, ikastetxe bakoitzaren historiak, bertan eta igurugiroarekin ezarritako harremanek, bertan dabilzan pertsonak dituzten igurikapenek, bertako arazoek eta abarrek nortasuna ematen diote ikastetxe bakoitzari eta gainerako guztietatik bereizten dute.

Gauza bera gertatzen da ikasgelekin ere; ikastetxe berean kokatu arren, segmentu sozio-ekonomiko bereko ikasleak bildu arren, irakasle berberak bertan ihardun ohi diren arren, desberdinak dira ikasgela guztiak. Taldean sortutako harremanek, giroak, taldea osatzen duten kideen nortasunak, zenbait ikasleren eragin positiboak ala negatiboak, igurikapenek eta abarrek ikastetxean dauden ikasgela guztiak berezi bilakatzen dituzte.

Ildo beretik jarraiki, honako ondorioa atera dezakegu: ikasleak ere bereziak direla. Hezkuntzari dagokion zenbait alderdiri begiratu soil bat egin eta berezitasunak ikus ditzakegu; ikasteko estiloak, ikasteko gaitasunak, interesak, motibazioak, igurikapenak, erritmoak, garapen-mailak eta alde zurretiko ikaskuntzen mailak, besteak beste, guztien arteko alde berri ematen diguten faktoreak dira.

Esandakoa laburbilduz, heterogeneotasuna da normalena; ikastetxeak, ikasgelak eta ikasleek berezi eta bakan bilakatzen dituzten errealitate eta ezaugarriak dauzkate. Hori horrela, berezitasunak eta mota guztietako premiak -tartean hezkuntza-alorrekoak- hain begi bistakoak izanik, sarritan zergatik ez dira hezkuntza-eskaintzan egin beharreko doikuntza guztiak burutzen?, zergatik izan ohi da, bada, hezkuntza-iharduna horren uniforme eta homogeneotzailea?, zergatik, nahi baino sarriago, irakatsi ohi zaie ikasle guztiei modu berean, material eta baliabide berberak erabilia eta espazio nahiz denbora berberak erabiliz?, zergatik irakasten zaizkie gauza berberak?

Eskola-populazioa osatzen duten pertsonen aniztasun agerikoa hezkuntza-sistema berriari planteatu zaion beste erronketariko bat da, ikasle guzti-guztiek curriculumean ezarritako ikasteko moduko eredu bati jarraitzea eskatzen baitu. Eredu hori aurkitu nahi izanez gero, norbanako eta taldeen berezitasunak aintzat hartu eta horien ezaugarriei egokitutako hezkuntza-erantzunak eskaini beharko ditugu.

LOGSE eta Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea (LEPV) argitara eman zirenetik, guztientzat curriculum bateratua ezartzen duen hezkuntza-sistema **muinbakar eta integratzailearen** bidea hartu da, derrigorrezko eskolaketa luzatu eta bestelako prestakuntza nahiz lanbide-alorreko aukerak hautatzeko unea atzeratu delarik.

* **Muinbakarra** dela diogunean zera esan nahi dugu, ikasle guztiei prestakuntzarako aukera berdina eta hezkuntza-esperientzia berberak eskaintzen dizkiela.

* **Integratzailea** dela diogunean, berriz, ikasle guztien hezkuntza-premiak asetzeko modukoa dela, ikasgela heterogeneoan soma daitezkeen interes, motibazio eta gaitasun desberdinei moldatuta asetu ere.

Hori guztia dela eta, hezkuntzako esku-hartze orok aniztasuna dagoela onartu eta erantzun egokia eman behar dio aniztasun horri; alabaina horretarako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ikuskera berezi bat hartu behar du kontuan, hots, eskaintza amankomunetik abiatuta, ikasle guztien premien arabera irakaskuntza ahalbidetu behar du eta lehen aipatutako prozesuaren pertsonalizazioa bultzatu.

Eskola-testuinguruan eta ikasleei dagokienez, **erakusgarri** desberdinak ditu aniztasunak, hona hemen:

1. Ikasteko estiloen aniztasuna.
2. Ikasteko gaitasunen aniztasuna.
3. Garapen-mailen eta alde zurretiko ikaskuntzen mailen aniztasuna.
4. Erritmoen aniztasuna.
5. Interes, motibazio eta igurikapenen aniztasuna.
6. Gutxiengo etniko nahiz gizarteko talde kaltetu edo baztertuen partaide izatea.
7. Gizarteko talde kaltetu edo baztertuen partaide izatea.
8. Eskolaketa desberdina izatea.

1) Ikasteko estiloen aniztasuna.

Ikasle guztiek ez dute modu berean ikasten. Ikasteko estiloak aztertzen baditugu gauza batez konturatuko gara, kontuan izan behar ditugula hezkuntza-iharduna planifikatzerakoan, berezitasunei erantzun egokia eman nahi izanez gero, behinik behin.

Ziurrenik talde-gela bereko ikasleek pentsatu nahiz ekiteko modu induktiboak, deduktiboak, sormenezkoak, kritikoak etab. izango dituzte; are, pertsona bakar batek ere maila desberdinak izan ditzake alor horretan.

Antzeko zerbait gertatzen da, halaber, ikasleek ikasgelan dituzten komunikazio-harremanak aztertuz gero; batzuek nahiago dute bakarka lan egin, besteek, ordea, hezkuntza-iharduerak taldetan burutzeko joera dute.

Ikaskuntza edo ebaluazio-iharduerak burutzerakoan erakusten duten autonomia-mailak ere berezitasunak ezartzeko bidea ematen digu. Batzuek, zenbait jarraipide izanez gero, eginkizun jakin batzuk burutu ditzakete, besteek, berriz, eginkizun horiek burutzeko irakasleen etengabeko tutoretza-iharduna beharko dute ezinbestez.

Adierazitako guztiaren ondorio gisa edo, ondokoa esan dezakegu: ez dagoela ezer kalte handiagorik eragiten dionik aniztasunaren errespetuari hezkuntza-estrategiak planteatu eta garatzeko orduan ikuskera homogenezatzaile eta uniformeak aintzat hartzea baino.

2) Ikasteko gaitasunen aniztasuna.

Erraz asko egiazta daiteke ikasgelako ikasle guztiek ez dutela denbora-epe berean eta erraztasun berberetz ikasten. Zenbait arlo, irakasgai edo edukin aise baneratzten dituzte ikasle batzuek, besteek, ordea, ez. Eragin izugarria dute gertakari horretan bakoitzak ikasteko dituen gaitasun bereziek.

Dena den, goian aipatutakoa aztertzerakoan, berezitasun indibidualen ikuskera estatikoen eta ikasteko gaitasunari buruzko planteamendu biologiko-deterministen eraginez, sarritan ez dugu kontuan hartzen ezaugarri indibidualen eta ikaskuntza-egoeraren arteko egokitzapena bideratuko dituen hezkuntza-iharduna kasuan kasuko estrategia didaktiko egokiak erabiliz bultzatzeak ondorio guztiz positiboak izango dituela.

3) Garapen-mailen eta alde zurretiko ikaskuntzen mailen aniztasuna.

Unitate didaktiko bati heltzeko orduan, ikasle guztiek ez dute heldutasun-maila beraz jokatzeko eta ez dituzte alde zurretiko ikaskuntza berberak ere. Kontuan izan beharko dugu hori, berezitasunak kaltegarri gerta ez daitezkeen hezkuntza-prozesuak iraun artean.

Zenbait kasutan, ikasleek duten garapen-maila desberdina dela-eta, edukin bat sei hilabete lehenago edo geroago lantzea guztiz erabakiorra izan daiteke taldeko ikasleren batek barneratzeko. Esate baterako, ikasle guztiek aldi berean, irakurtzen, idazten ala eramanak dituzten kenketak egiten ikastea kaltegarria izan daiteke ikasle-taldeko kide-kopuru handi batentzat.

Beste zenbait kasutan, ostera, aldez aurretiko ikaskuntzak ondoren ikasi beharrekoen oztopo gerta daitezke. Paradoxikoa gertatu arren, sarritan ahalegindu egiten gara ikasle batzuei bigarren mailako ekuazioak irakasten lehen mailakoak egiten ez dakitela kontuan hartu gabe, edo irakurtzen ikasi behar dutela irakurketa-prozesurako guztiz mesedegarriak izan litezken espazio-denborei buruzko kontzeptu jakin batzuk barneratuta eduki gabe ere.

4) Erritmoen aniztasuna.

Lan egiteko eta ikasteko erritmoei dagokienez ere, argi dago erritmo desberdinak dituztela ikasleek; hori horrela, erritmoak kontuan hartuta denbora-epe malguak ezarri behar ditugu ekin aurretik.

Lanean buru-belarri aritzeko eta zenbait eginkizun burutzeko gaitasuna ez da uniformea; zenbait ikaslek ez du eragozpen berezirik orri-kopuru jakin bat irakurri edo idazteko (gustokoa dute, motibatzailea, dibertigarria eta interesgarria iruditzen zaie,...), baina beste zenbaitek ezin du inolaz ere eginkizun hori burutu, gehiegizko ahalegina egin behar baitu horretarako.

Era berean, ikasi beharko diren edukinen kantitatea eta kalitatea ere ez da berbera izango. Gauzak horrela, batzuek prozedura bat baino gehiago barneratuko dute lan-saio bakar batean, besteek, berriz, saio bat baino gehiago beharko dute aurrekoek eskuratutako prozedura-kopurua barneratzeko.

5) Interes, motibazio eta igurikapenen aniztasuna.

Ikasteko nahiz lan egiteko metodoei dagokienez, ikasle guztien interes edo eta motibazio-mailak ez dira berdinak, are, denbora igaro ahala gehiago bereizten dira.

Ikastetxearekiko igurikapenak ere anitz motakoak dira; gauzak horrela, zenbait ikaslek/gurasok eurei/semi-alabei prestakuntza-prozesuan aurrera jarraitzeko aukera emango dieten oinarritzko prestakuntza eskuratzea espero duten bitartean, beste ikasle/guraso batzuek ezagutza jakin batzuk (irakurtzen, idazten, kalkulatzeko etab. egiten ikastea, oinarri-oinarritzko mailan gainera) eskuratu nahi dituzte soilik; ahal bait lehen lan-munduan sartzeko beharko dituzten ezagutzak besterik ez zaizkie interesatzen, beraz.

Esanak esan, hezkuntza-praktika planifikatu eta garatzeko orduan errealitate horiek guztiak kontuan hartu, hausnartu eta horren arabera ekin beharko diogu lanari.

6) Gutxiengo etnikoen partaide izatea.

Gutxiengo etniko baten partaide izateak (ijito, ipar-afrikar, etab izateak) hezkuntza-ihardunean kontuan hartu beharko ditugun ezaugarri eta hezkuntza-premia berezietz janzten ditu ikasleak.

Elkar ezagutzeko eta aberasteko espazioak sortzea eta dauden desberdinatsunak orekatzeko merkanismoak abiaraztea guztiz lagungarria izango da, norbanakoaren eta taldearen arteko berezitasunak errespetatuz, pertsona bakoitzaren hezkuntza-premiei erantzun egokiagoa emateko eta kultur nahiz gizarte-alorreko integrazio-maila handiagoak bultzatzeko.

7) Gizarteko talde kaltetu edo baztertuen partaide izatea.

Gizarteko talde jakin batzuen partaide diren ikasleek (elbarritasunen bat duten pertsonak, pobreek, behe mailako giro sozio-ekonomiko-kultural batean bizi direnek, etorkinek, etab.) ondokoak lortzeko moduko hezkuntza izan behar dute: "desberdintasunak berdinduko, oreka-ezak orekatuko dituen hezkuntza, ekonomi nahiz kultur iturburuak edo, besterik gabe, arrazoi fisiko nahiz psikologikoak direla bide, ikasketei heltzeko baldintza eskasagoak aurkitzen baititu zenbait pertsonak" (Europako Kontseilua 1977).

8) Eskolaketa desberdina izatea.

Sarritan egiazta daitekeenez, ikasleen eskolatzeko-prozesua ez da beti guk espero duguna eta nolabaiteko berezitasun txiki batzuk gertatu ohi dira. Zenbait kasutan, inongo eskolatzetik izan ez duten ikasleak dira horren arrazoia, bestetan, eskolatzeko berantiarra edo eta desegokia izan dutenak.

Azken batean, orain arte aipatutako aniztasunaren erakusgarri guztiek ikasleek eratuko dituzten edo eratzeko gai izango diren esanahiak baldintzatu ez ezik, ikaskuntzari eman diezaioketen zentzua ere baldintzatuko dute, non, aniztasunari erantzun egokia emanaz gero, ikasle eta irakasleek euren ikaskuntza eta irakaskuntza-iharduna gehiago eta hobeto burutzeko aukera izango duten.

2.- ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PRINTZIBIOAK

- 1.- Orijinaltasuna versus eredu-ikaslea.
- 2.- Heterogeneotasuna versus homogeneotasuna.
- 3.- Hezkuntza-erantzun berezia versus erantzun uniforme.
- 4.- Hezkidetzaren versus sexismoa.
- 5.- Kulturartekotasuna versus kultur monolitismoa eta etnozentrismoa.
- 6.- Hezkuntzaren helburuak berberak dira ikasle guztientzat.
- 7.- Kaltetuenei laguntzeko ekintza positiboak.
- 8.- Hezkuntza-premiak erlatiboak, aldi baterakoak eta elkarreraginezkoak dira.

1.- Orijinaltasuna versus eredu/ikaslea.

Berezitasun indibidualen berariazko aitortpenari egiten dio erreferentzia eta pertsona bakoitzak bilakatzeko duen modu berezia justifikatzen du; norbere pentsamenduak, gauzak egiteko eta izateko modu bereziak eta mota guztietako abiapuntu eta helmugak gizakion berezko ezaugarriak dira, are, aberastasun eta aurrerakuntza-iturri ere badira. Hala izanik, alderdi horiek guztiak errespetatu, baloratu eta bultzatu egin behar dira.

2.- Heterogeneotasuna versus homogeneotasuna.

Aniztasuna eta berezitasuna ulertu eta horiekin jasankor izan beharra dagoela erakusten du printzipio honek, eta norbere burua eta taldea aberasteko aukerak ematen ditu elkarreraginezko harremanak direla bide.

Aniztasuna modu integratzailean landu nahi duen irakaskuntza muinbakarrak ikasleen talde heterogeneoen errealitatea hartu behar du oinarritzko erreferentzia gisa. Heterogeneotasun-egoera horrek, ikasle guztien hezkuntza-premiei egin beharreko arretarekiko koherentea izateaz gain, gizarte plural eta demokratiko batean erroturiko eskola bultzatzeko harreman-esparru egokia ematen digu.

Aniztasunari trataera integratzailea emateak ondokoa esan nahi du: alde batetik, aniztasuna onartu behar dela eta bultzatu, taldearentzat aberasgarria baita eta, bestetik, berezitasunak onetsi behar direla, ikasle guztiek gaitasun eta trebetasun jakin batzuk eskuratu ditzaten, ikasleen egoera pertsonala eta gizarte nahiz kultur alorreko erreferentzia zehatzak eta

ikaskuntza-prozesu eta erritmoak kontuan hartuta, emaitzak elkarren artean desberdinak izango direla onartuz eta behar den guztietan orekatuz.

Ikasgela heterogeneoan gertatzen diren egoera desberdin guztiak hezkuntza-sistema osatzen duten maila guztietan jorratu behar dira, elkarte osoan gertatu ohi diren egoera guztiguztiak eskola bakoitzean, zona bakoitzean zehazteko modua emango diguten baliabide didaktikoen laguntzaz jorratu ere, hori baita benetan muinbakarra den eskola eratzeko bidea. (Eskola muinbakarra eta integratzailea, Eusko Jaurlaritza, 1989).

3.- Hezkuntza-erantzun berezia versus erantzun uniforme.

Aniztasuna onartu eta bultzatzean datza, eta berezitasunak onestean ikasle guztiek gaitasun eta trebetasun jakin batzuk eskuratu ditzaten, ikasleen egoera pertsonala eta gizarte nahiz kultur alorreko errefrentzia zehatzak eta ikaskuntza-prozesu eta erritmoak kontuan hartuta, emaitzak elkarren artean desberdinak izango direla onartuz eta behar den guztietan orekatuz. (Eskola muinbakar eta integratzailea, Eusko Jaurlaritza, 1989).

Planteamendu uniforme eta homogeneousatzaileak, berdintasuna oker ulertu izanean oinarrituta daudelarik, non ikasle guztientzat baliabide berak eta denbora berberak erabiltzen diren, bidegabeak izan ez ezik, baliagarriak ere ez dira izango, pertsona bakoitzaren berezitasunen ukazioa baitute abiapuntu.

4.- Hezkidetzaren versus sexismoa.

Ikastetxeak mistoak izanik ere, eta ikasle guztiek eduki berberak landu arren, horrek ez du esan nahi hezkuntza-prozesuak berdintasunean burutzen direnik, inolako aurretiazko ezarpenik gabe. Sarritan, eskolan jorrotutako balioek, jarrerak eta portaerak, kontzienteki batzuetan eta inkontzienteki bestetan, esanahi desberdinak dituzte mutilei zuzentzen zaizkienean eta neskei zuzentzen zaizkienean.

Hori saihesteko, beraz, ikasgelako neska-mutilak eskubide, eginbehar eta aukera-berdintasunean hezteko moduko hezkuntza-ihardun planifikatu eta sistematikoa bultzatu behar da ezinbestez -beti ere sexu-desberdintasunak abiapuntu gisa hartuta- eta guztien garapen erabatekoa ahalbidetu, alde aurretik ezarritako inposizio oro alde batera utzirik.

5.- Kulturartekotasuna versus kultur monolitismoa eta etnozentrismoa.

Eskola elkarrizketarako eta komunikaziorako espazio bilakatzean datza, non mota desberdinetako talde sozio-kulturalen arteko ulermena eta jasankortasuna indartuko den. Gure gizartean dauden kultur mota guztiak, hots, talde handien eta txikien kultura desberdinak ezagutu, ulertu eta errespetatzeko hezteko, bakoitzaren alderdiei buruzko gogoetak eraginez.

6.- Lehen Hezkuntzan ikasle guztiek lortu beharreko helburuak.

Helburu horien bitartez, ikasle guztiek ahalik eta garapen pertsonal handiena izan dezaten erdietsi nahi da, kide diren gizarteko taldean integratzeko, autonomia eta sormen-maila ahalik eta altuena izanda integratu ere. Ikasle guztiei dagokien eskubidea da hori eta, horrexegatik, hain zuzen, Hezkuntza-Administrazioen eginbearra ere bada.

Irakaskuntza muinbakarrak aniztasunaren trataerarekin estu lotuta egon behar du, ikasle guztiek gaitasunak garatzeko moduko tresna eta estrategia ugari finkatu behar dituelarik. Aldi berean, aniztasunaren trataerari heltzeko ikaskuntza-esperientzia amankomunak ahalbidetuko dituen eta igurikapenak sortuko dituen esparru bateratu bat hartu behar da abiapuntu gisa, ikasleak goizegi bereziko ez dituen esparrua, alegia.

Irakaskuntza muinbakar horren barruan, muinbakartasunaren, aniztasunari egin beharreko arretaren eta subjektuen gaitasunen ahalik eta garapen handienaren oreka nahikoa izateko modua emango duten estrategiak eta baliabideak ezarri behar ditu aniztasunaren trataerak (EAEko Lehen Hezkuntzako OCD).

7.- Kaltetuenei laguntzeko ekintza positiboak.

Desberdintasunak edo eta urritasunak berdintzeko eta aukera-berdintasuna bermatzeko lehenespen-trataera ematean datza; trataera berezi horrek ez du zertan etengabekoa izan beharrik.

Gehien behar duenari gehiago laguntzea gizarte-justiziaren funtsezko ardetzaritako bat da. Hezkuntzari dagokionez, zera esan nahi du horrek, baliabide pertsonal gehiago, denbora gehiago eta material gehiago erabili behar direla laguntza gehien behar duten ikasleekin.

8.- Hezkuntza-premien erlatibotasuna, denboralitatea eta elkarreragina.

Ikasleek zenbait hezkuntza-premia izatea gauza askoren menpe egon daiteke; alde batetik ikaslearen beraren urritasunek nahiz ingurunearen urritasunek eragin ditzakete premia horiek, bestetik, maila desberdinetan eskuragarri dauden baliabideen erruz ere sor daitezke aipatutako hezkuntza-premiak (hala nola familiaren, ikastetxearen nahiz zonaren erruz, besteak beste). Gainera, premia horiek batzuetan luzaroan bere horretan dirauten arren, bestetan iragankorrak dira.

Ingurune hurbilean zenbait baliabide izanez gero eta irakasle eta familiakoek esku-hartze egokia burutuz gero, subjektuak dituen hezkuntza-premiak txikitu egin ohi dira maiz, are, kasu batzuetan desagertu ere egiten dira.

3.- ANIZTASUNAREN TRATAERA CURRICULUMEAN

EAEko OCDn jasota dagoenez, ondokoek osatzen dute curriculuma:

- . *Eskola-inguruneak ikasleei ikasteko aukera gisa eskaintzen dion orok.*
- . *Eskolak aukera horiek emateko dituen bide guztiek.*
- . *Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak ebaluatzeko dituen moduek.*

Hori horrela, curriculum-diseinua lantzeari ekiterakoan hiru urrats egin behar dira. Hasteko, ikasleek ikastea nahi duguna kontuan hartu eta lehentasuna duten gaiak finkatu behar dira; ondoren, proposatutakoa noiz eta nola burutu daitekeen azaldu behar da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua abiarazteko eta, azkenik, zer, noiz eta nola ebaluatuko dugun zehaztu.

Ikasle guztien ezaugarriak kontuan izateko eta eta laguntza pedagogikoa gehiago eta hobeto doitzeko asmoz, curriculum-eredu irekia, malgua eta orokorra aukeratu dugu, eskola-populazio osoaren premia amankomunei erantzuteko eta behar dituzten ikasleentzako egokitzapenak ahalbidetzeko egokia delakoan.

OCD oinarri gisa hartuta, irakasle-taldeek zehaztuko dute zer, noiz eta nola irakatsiko duten eta ebaluatuko duten, beti ere, ikasleen, ingurunearen eta ikastetxearen ezaugarriak kontuan izanda.

Aipatu dokumentuan hobetsitako eskola muinbakarrak ezaugarri nagusi bat du, hots, adin jakin bateko ikasle guztiei edukin amakomun ugari eskaintzen diela, erakunde eta ikasgela berean eskaini ere, ikasleak atzera itzultzeko modurik ematen ez dien prestakuntza-bide desberdinetan barrena abiatzeko unea saihestuz edo ahal bait gehien atzeratuz.

Hezkuntza muinbakarra izan dadin, ikasle guztientzako -hezkuntza-premia bereziak dituztenentzako barne- gutxienezko helburu amankomun batzuk diseinatu behar ditugu, eta planteamendu hori abiapuntu izanik, ikasleari pertsona eta herritar dein heinean baliagarriak gertatuko zaizkion ikaskuntza funtzionalak bultzatu. Era berean, hezkuntza aniztua sustatu behar dugu, ikasleen berezitasunei eta ikaskuntzak gertatzen diren testuinguruei egokitzen zaion hezkuntza, hain zuzen ere.

Ez du inolako zentzurik hezkuntza bereziko curriculum batez eta beste curriculum arrunt batez hitzegiteak, biak hezkuntza-errealitate desberdinak bailiran. Hezkuntza-sistema osatzen duten maila guztietan curriculum arrunt bakar bat besterik ez dago; hori oinarritzat hartuta egin behar dira **erlatiboak** eta **elkarreraginezkoak** izan daitezkeen premia batzuei aurre egiteko beharrezko egokitzapen eta aldaketak.

Hezkuntza-premiak erlatiboak eta elkarreraginezkoak direla esatean ikasleen urritasunen menpe nahiz ingurunearen eta bertako baliabideen menpe egon daitezkeela onartzen dugu; aldi baterako direla aitortzean, berriz, trataera egokia eman ez gero desagertu egin daitezkeela onesten.

3.1. Aniztasunaren trataera curriculumaren planteamendu orokorrean.


Gure Autonomi Elkarteko Oinarrizko Curriculum-Diseinuak (OCD) aniztasunari erantzun egokiagoa ematea ahalbidetzen duten zenbait ezaugarri du; hona hemen:

- Irekia da eta malgua, irakasle-taldeari curriculum-proposamena zehaztu eta garatuko den hezkuntza-testuinguruaren ezaugarriei moldatzeko bidea emateko.
- Irakasleek curriculum-a zehazteko prozesuan parte hartzen dute, euren iharduna aztertzen eta horri buruz gogoeta egiten dutelarik; gauzak horrela, curriculum-a ikastetxeko ikasleen ezaugarriei moldatzeko aukera dute.
- Iharduera asko bultzatzen ditu, bai ezagutza-alorrekoak eta baita gorputzaren, afektibotasunaren, oreka pertsonalaren eta harremanen alorrekoak ere. Egundaino ezagutzazko gaitasunak lantzearen baztertuak zeuden garapen pertsonaleko beste arlo batzuk nabarmendu eta lehen aipatutakoen parean jartzen ditu eta, aldi berean, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari ikasle bakoitzaren globaltasuna erabat onartzen duen orientabidea ematen dio. Pertsonaren alderdi gehiago kontuan hartzen direnez, ikasleei egindako arreta askoz osatuagoa da egungo curriculumetan.
- Edukinak arlotan banatuta daude. Horrela ikuskera orohartzaileagoak eta funtzionalagoak ahalbidetzen dira, irakasleen koordinazioa aisatzen da eta talde heterogeneoen ikaskuntza-eritmoekin eta interesekin bat datorren sekuentziarioa antolatzen da.
- Edukinak hautatzeko orduan, kontuan hartzen dira hurrek ondokoak egiteko oinarrizkoak diren elementuak:
 - * ingurunean modu autonomoan moldatzeko eta iharduteko elementuak,
 - * gizarteratze egokia izateko elementuak, hots, elkarbizitza demokratikoa izateko jarrerak eskuratzeko baliagarriak direnak.
- Ikasleen premiei egokitzeko aukera apartak ematen dituzten antolamendu-erakundeak eta sekuentziarioak bultzatzen dira.
- Ikasleei beren kabuz ezagutzak eratzeko bidea ematen dieten irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak indartzen dira, irakaslearen zeregina aldatu delarik, prozesu horiek bideratzen dituen pertsona baita oraingoan.
- Orientabide-dinamika bultzatzen da. Dinamika horren oinarria tutorea da eta horren laguntzailea aholkularia.
- Ebaluazioa prestakuntzazkoa da nagusiki, hezkuntza-iharduna norabide batean zein bestean gidatzeko eta bikaintzeko modua ematen digularik prozesuan egin beharreko doikuntzen jakinaren gainean jartzen baikaitu.

3.2. Aniztasunaren trataera curriculumaren zehaztapan-maila desberdinetan.

Ezinbestekoa da muinbakartasunaren eta aniztasunaren arteko oreka onartzen duen OCD izatea, erreferentzi esparru teoriko bat eskaintzen baitigu. Hala ere, curriculumaren egokitzapen-maila desberdinei dagokie esparru teoriko horretan jasotakoak bideratzea eta erreal bilakatzea.

Gauzak horrela, OCDren zehaztapan-mailak izango dira lehen aipatutako nahitaezko aldaketak ahalbidetuko dituztenak.



Lehenik eta behin, ikastetxe bakoitzak OCD eta Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua (IHP) oinarri gisa hartuta Curriculum-Proiektua lantzen duenean, ikasleek, talde gisa, dituzten premia nagusien berri biltzen du eta curriculum horiei moldatzen.

IHPri dagokionez, hezkuntza-elkartean aniztasunean hezteak duen esanahiari buruzko eztabaidak piztu eta kontzeptu horren inguruko argibideak eman beharra dago, IHP ez ezik, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren planifikazioa, garapena eta ebaluazioa ahalbidetzen duten gainerako erremintak ere (hala nola, ICP, Antolakuntza eta Iharduera-Araudia (AIA), Ikasgelaren Programazioa (IP), Urteko Plana, etab.) printzipio horren arabera eratzeko.

Ikastetxe ugarian ez da oraindik IHP landu, hortaz, lehen aipatutako aniztasunari buruzko hausnarketa prozesua ez da burutu eta ez da horri buruzko inolako akordiorik hartu; dena den ICP jorratu bitartean ere egin daiteke hori.

ICPren bitartez aniztasunari erantzuteko, curriculumeko elementuen alderdi desberdinen inguruko erabakiak aztertu eta bateratu beharko dira, ikasle guztiei etapako eta zikloko helburuak lortzeko modua eman nahi badiegu, behinik behin.

Ondoren, ziklo-gelako irakasle-talde bakoitzari dagokio ICPn jasotako erabakiak talde-gelaren ezaugarri bereziei moldatzea, testuinguru horretan ikusi baitaitezke ongien ikasleen berezitasunak.

Alabaina, hirugarren doikuntza bat ere egin dezake ikasgela bateko irakasle-taldeak ikasleren batek hezkuntza-premia bereziak dituenean (eskolatze berantiarra, eritasun luzeren bat, nolana hiko eragozpenak,...), premia horiek eskaintza amankomuna aldatzeko modukoak badira, bederen.

Curriculum-Egokitzapen Indibiduala ondokoa da: ikasgelako curriculumean jasotako elementu bat edo gehiago moldatzeko prozesua, zeinaren bidez erantzun egokiak ematen zaizkion ikasleak dituen hezkuntza-premia bereziei.

Curriculumaren 2. eta 3. zehaztapen-mailetan, ICPn eta IPn hurrenez-hurren, aniztasunari egin beharreko arreta zenbat eta gehiago kontuan hartu, orduan eta curriculum-egokitzapen indibidual gutxiago egin beharko da. Horrek ez du esan nahi zenbait kasutan egokitzapenik burutu beharko ez denik.

Maila desberdinetan (ICP eta IP) curriculumeko elementu desberdinak direla-eta (helburuak, edukinak, metodologia, ebaluazioa) hartutako erabakiak zehazterakoan eta praktikan jartzerakoan ikasle guztien hezkuntza-premiak kontuan izan baditugu eta guztiei erantzuteko bideak aurkitu baditugu -hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuak barne-, heterogeneotasunaren trataera zinez integratzailea ahalbidetzen duen hezkuntzaren ildoan gaudela esan dezakegu.

3.3.- ICP lantzerakoan aniztasunari erantzuteko kontuan izan behar diren irizpideak.

Administrazioak ezarritako araudia eta curriculum-proposamenak oinarri dituelarik, ICPk ondoko galderari erantzun behar die: zer, noiz eta nola irakatsi eta ebaluatu behar den. Hori dela eta, ikastetxearen esku-hartze pedagogikoaren baliabideak eta ezaugarriak finkatu behar ditu koherentzia emateko.

ICP eratzeko orduan, aniztasunaren trataerari buruz hartzen diren erabaki gehienak ez dira lotuta dauden curriculumaren osagai desberdinetatik isolatu eta berezi behar (hau da, helburu, edukin, antolamendu, baliabide, ebaluazio eta abarretik); aitzitik, estu atxiki behar zaizkie, elementu horietako edozeini buruzko erabakiak hartzen direnean ikastetxe osoko aniztasuna kontuan hartu ahal izateko.

Ikastetxearen Curriculum-Proiektua lantzen dutenek ikastetxeko ikasle gehien ezaugarri amankomunak izan behar dituzte gogoan erabakiak hartzeko orduan, alabaina ez dituzte ahaztu behar zenbaiten berezitasunak, hartutako erabakien bidez errespetatu eta bultzatu egin behar dituztelarik berezitasun horiek eta ez baztertu edo ezabatu. Funtsean, erabaki horiek bi motakoak izango dira, hots: alde batetik, aniztasunari modu inplizitoan erantzuteko bidea ematen dutenak, irakaskuntzaren pertsonalizazioa ahalbidetzen duten baldintza egokiak barne biltzen dituen hezkuntza-esparrua osatzen dutenak, alegia; eta bestetik, modu esplizitoan aniztasunaren trataera posible egiten duten neurriekin lotutakoak.

Curriculumean azaldu beharreko oinarrizko elementuak lau galdera nagusiren inguruan hezur-mamitu daitezke. Irakasle orok, kontuan hartu behar ditu, inplizitoki nahiz esplizitoki, lau galdera horiek lana planifikatu eta burutzerakoan; hona hemen:

1 * ZER IRAKATSI:

Galdera honen erantzunak helburuei eta edukinei buruzko informazioa ematen digu. Helburuak irakaskuntza-ikaskuntza prozesu osoaren erreferentzigunea dira; helburuak abiapuntu gisa hartuta, aplikatu beharreko ebaluaziorako irizpideak zehaztu daitezke. Irakatsi nahi dugun guztia eta ikasleek eskuratu edo ikasi beharrekoa biltzen dugu edukinetan. Izan ere, edukinen hautaketa irakaskuntza-prozesu ororen oinarrizko aukeratariko bat da.

2 * NOIZ IRAKATSI:

Galdera honen erantzunak ondokoei buruzko informazioa ematen digu: alde batetik, edukinak etapan zehar nola sekuentziatu daitezkeen adierazten digu, hau da, nola ordenatu behar diren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren arabera; bestetik, denboralizazioaren berri ematen digu, hau da, edukin jakin batzuk lantzeko behar den denboraren berri. Sekuentziazioa eta denboralizazioa ebatzi ostean, edukinak zikloetan banatzeko modua izango dugu eta, ziklo bakoitzaren barruan, denbora-unitate praktikoagoetan zatitzeko aukera.

3 * NOLA IRAKATSI:

Galdera horri erantzunda hiru gauza planteatzen dira, alde batetik, edukinen, ihardueren eta baliabide didaktikoen metodologia, bestetik, ikasleen ikaskuntzan eta garapen pertsonalean nahiz sozialean eragiten duten komunikazio-harremanak eta elkarreginak eta, azkenik, proposatutako helburuak lortzeko hezkuntza-ihardunean ezinbestekoak diren elementuen (espazioa, denbora, taldeak...) antolamendua.

4 * ZER, NOLA ETA NOIZ EBALUATU:

Lortu nahi diren xedeen arabera erabili beharreko irizpide batzuk (zer), une edo egoera batzuk (noiz) eta baliabide edo tresna jakin batzuk (nola) erreferentzi gisa dituen prozesua da ebaluazioa.

Curriculum osatuko duten elementuei buruzko erabakiak hartzeko orduan kontuan izan beharko dugu ikasle nahiz talde jakin baten eskakizun bereziei erantzun behar diegula. Hain zuzen ere, eskakizun horiei erantzuteko asmoz, curriculumeko osagaiei buruz hausnartzeko eta bakoitza zehazteko zenbait orientabide adieraziko dugu jarraian.

1) HELBURUAK.

Etapako eta arloko helburu orokorrek ikasleek garatu beharreko gaitasunen berri ematen dute, irakaskuntza-ikaskuntza prozesu ororen erreferente nagusia dira, beraz. Curriculum osatzen duten gainerako elementuen inguruko erabakiak baldintzatzen dituzte hein handi batean. Ikastetxeek helburuak egokitu behar dituzte, kokatuta dauden testuinguruan esanahi zehatz bat izan dezaten.

Ikaskuntza-maila, eskolan aurretik izandako ibilbidea, interesak, premia garrantzitsuenak, arazo bereziak, eskolarekiko jarrerak, igurikapenak, etab. hartu beharko dira kontuan helburuak ikastetxeari moldatzeko prozesuan (azalduz, lehentasuna emanez, taldekaturik, sartuz edo iruzkinduz) eta baita helburu horiek denboralizatu eta zehazteko prozesuan ere.

"Ezartzeko orduan kontuan hartu beharko da mailakatzea posible izan behar dela eta, era berean, zehaztaperen baztertzailak edo mugatuak diren portaerei buruzko zehaztaperenak saihestu behar direla" (Tirado eta Fernández, 1994).

Irakasle-taldeek argi izan behar dute gaitasun horiek ikasle guztiek garatu behar dituztela; zentzu horretan, bost gaitasun-motak (ezagutzazko gaitasunak, mugimenezkoak, oreka pertsonalari, harremanei eta gizarteratzeari dagozkionak) orekatuta daudela ziurtatu beharra dago, ikasleen garapen-eremuen gaineko hezkuntzako esku-hartzea bermatuko baitu horien arteko orekak eta, hortaz, hezkuntza-asmoetan ezaugarri eta egoera-aniztasunaren berri biltzeko modua izango baitugu.

"Izan ere, ikaskuntzan eragozpenen bat duen adin horretako ikasle ugari arazoak izan ohi ditu sarritan ikasgelan gehienbat landutako nukleoa osatzen duten ezagutzazko edukinak ikasteko. Bistakoa da orekatutako arreta horrek ez diela eragozpen horiek berez gainditzeko biderik emango, baina, hala izanik ere, beste modu batera ihardunez gero blokatutik edo bazterturik geratuko liratekeen beste eremu batzuetan ikaskuntzak burutzeko modua izango dute,

batez ere ikaskuntza dela-eta dituzten igurikapenak, atribuzioak, xedeak, etab. errotik aldatzeko, hots, ikaskuntzei emandako zentzua, eskolarekiko harremana eta bertan ikasi beharraren aurreko jarrera mutatzeko". (Onrubia J., 1993)

Gauzak horrela, helburuetan azaldutakoa eta gelan nahiz ikastetxean burututako hezkuntza-praktika bat etortzea ezinbestekoa da, pedagogi alorreko kontraesanetan ez erortzeko, eguneroko lanean jorratuko ez diren gaitasun-multzo bat ez zehazteko, alegia.

ICPn jasotako helburuak direla-eta, arestian aipatutako hausnarketa-prozesua eta erabakiak eta, hala badagokio, egindakoaren analisisa bideratuko duten giltzarriak izan daitezke ondoko hauek:

- * Arloko helburu orokorrak ikastetxeari moldatzerakoan, sexu-desberdintasunarekin eta gizarte-maila, sinismen, arraza-alorreko desberdinatsunekin nahiz ikasleen bestelako ezaugarriekin zerikusia duten hezkuntza-premiak kontuan hartzea.
- * Arloko helburuen garapen-maila zikloka denboralizatu eta zehazteko modua egokia dela bermatzea, etapako ikasleen ahalbideen eta ezaugarrien arabera dela ziurtatzea.
- * Bost gaitasun-motak ikasle guztiek berdin garatzeko moduan planteatzea.
- *

- Ikastetxe jakin batean, bereizkeria eragiten duten gizarte-jokabideak nolabait orekatzeko asmotan, honela bildu dute Lehen Hezkuntzako "D" helburuaren berri:

"Gizarte-egoera ezagunetan, pertsonekin harreman orekatu eta eratzailleak izatea, arraza, gizarte-maila, sinismen nahiz bestelako banakako edo taldeko ezaugarrietan oinarritutako bazterkeria oro gaitzetsiz, elkartasunez jokatzuz eta bereizkeriaren aurkako konpromisu pertsonala hartuz".

- Zona euskaldunean kokatuta dagoen ikastetxe batean ondoko hitzekin azaldu dute hizkuntzako 3. helburua:

"Espainiako estatuaren, EAEko lurralde desberdinen eta gizartearen hizkuntz aniztasuna onartzea eta aintzat hartzea, kultur gertakari aberasgarria dela aitortuz gainera".

- Haur Hezkuntzatik igaro gabe, Lehen Hezkuntzako lehen kurtsoan hasi diren ikasle asko dabilzan ikastetxe batean honako iruzkin hau bildu dute Hizkuntz arloko helburu orokoren ostean:

"Ikasle ugari ikastetxean Lehen Hezkuntzako lehen kurtsoan hasi denez, haiekin gehiago lan egiten saiatuko gara lehen hiruhilekoan, eta beharrezkoa izanez gero, baita bigarren hiruhilekoan ere, irakur-idazketa ikasteari ekiteko behar dituzten espazio eta denbora-alorreko kontzeptuak eskuratzeko bidea emango dieten iharduera batzuk proposatuko dizkiegularik".

2) EDUKINAK.

"Irakas daitezkeen eta, beraz, ikas daitezkeen errealitate soziokulturaleko alderdiak dira edukinak, konplexutasun-maila handiagoko edo txikiagoko ikaskuntza-mota desberdinak burutzeko aukera ematen dietelarik ikasleei. Etapako eta arloko helburu orokorretan bildutako gaitasunak bultzatzeko bidea dira; hori dela eta, lantzerakoan aipatu helburuak izan behar dira beti gogoan". (Blanco R., 1993).

Edukin batzuk ala besteak lantzea, arlo desberdinetan kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukinen arteko oreka izateak, zenbait irizpide pisiko-pedagogiko kontuan izateak, edukinak erlazionatzeko modu batzuk ala besteak hartzeak eta zikloen denboralizazioa ikasle bakoitzari nahiz ikasle-talde baten ezaugarri bereziei egokitzeko bezain malguak izateak, gauza horiek guztiek eskolako hainbat ikaskuntzatan parte ez hartzeko, eta, beraz, bere gaitasunak garatzeko bidea emango dien ikaskuntza jakin batzuk burutzeko aukera emango diote zenbait ikasleri.

Goian aipatutakoak ezinbestez kontuan izan behar dira edukinei buruzko erabakiak hartzerakoan eta horiek nola hautatu, antolatu eta ICPn zein modutan banatuko diren ebazterakoan. Albora utziz gero, premiei erantzutea ezinezkoa izan ez ezik, emaitza Euskal Eskola Publikoaren hezkuntza-xedeekin inolaz bat ez datorren hezkuntza-praktika guztiz selektiboa izan baitaiteke.

Hona hemen ICPko edukinak direla-eta arestian aipatutako hausnarketa-prozesua eta erabakiak eta, hala badagokio, egindakoaren analisia erraztuko dituzten giltzarri batzuen berri:

* Arloetako edukinen testuingurua finkatzerakoan, ikasleen premia guztiak kontuan hartzea.

* EAEko OCDn bildutako edukinak nahikoak izatea etapako ikasle guztiei erantzuteko.

* Hiru edukin-motak orekatuta egotea (kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukinak, alegia).

* Edukinak sekuentziazterakoan ondoko irizpideak kontuan hartzea:

. psikologikoak:

- ikasleen bilakaerarekin bat datoze
- edukinak alde zuzeneko erantzunak emateko egokitzeko zuzkiela
- sinpleenetatik hasi eta konplexuenera ordenatuta daudela
- hurbilenekotik hasi eta urrunekora doazela
- partikularretik orokorrera
- globaletik zehatzenera
- konkretutik abstraktura

. pedagogikoak:

- jarraikortasuna eta progresioa (curriculum espirala)
- elkarren arteko erlazioa
- integrazioa eta oreka
- sekuentziazioa burutzerakoan, edukin-mota batek lehentasuna duela

. epistemologikoak:

- ideia-ardatzak mugatuta daudela

* Edukinak (diziplinako tratuak, diziplinartekoak, orohartzaileak) arlo batean edo arloen artean erlazionatzeko moduak ezartzea, ikasle guztiek aurrikusitako helburuak erdiesteko.

* Ziklo bakoitzean ezarritako edukinen denboralizazioa ikasle bakoitzaren nahiz ikasle-talde baten ezaugarriari egokitzeko bezain malgua izatea.

- Hezkidetzaren bereziki indartu nahi duten ikastetxe batean ondoko erabakia hartu dute:

"Ziklo bakoitzean hiru unitate didaktiko landuko dira; hona hemen bertan jorritako direnak: Gizonak eta emakumeak familian, gizonak eta emakumeak lanean, gizonak eta emakumeak ipuinetan eta filmeetan".

- Gorputz-higienea bereziki landu beharreko arazoa den ikastetxe batean, edukinen barruan ziklo bakoitzean landu beharreko unitate didaktiko batzuk sartzea erabaki dute; hona hemen:

" ... azala garbia izatea, ile-higienea, oin-higienea, sudur-higienea, begi-higienea, aho-higienea, arropa eta oinetakoen higiena, kirola eta osasuna, elikadura eta osasuna..."

- Beste ikastetxe batean ondoko aldaketa proposatu dute:

" .. aurrerantzean ziklikoki landuko ditugu azpimarratzeari eta eskemak nahiz laburpenak egiteari buruzko prozedurak eta jarrerak, hau da, 3. zikloko bi kurtsoetan jorratuko ditugu; gure ustez prozesu horrekin jarraituz gero prozedura eta jarrera horiek tinkotu eta sakonduko baititugu arian-arian eta ikasleei, barneratzeko ez ezik, eguneroko eginkizunetan praktikan jartzeko aukerak emango dizkiegu."

3) ORIENTABIDEA ETA TUTORETZA

Ikasleen erabateko garapena bultzatzea da ikaskuntzaren helburu nagusia, alabaina, helburu hori lortu nahi izanez gero, hezkuntzako profesional guztiek burutu beharko dute tutoretza-iharduna. Hori horrela, tutoretza-iharduna taldean esku hartzen duten irakasle guztien eginkizun bilakatzen da, are, hezkuntza-erakunde osoaren zeregin bihurtzen.

Tutoretza-ihardunak irakasleen ihardunaren zati izan behar du, ikastetxearen curriculum-proiektuaren atal, lankidetzazko irizpideei jarraituta burutu behar delarik beti.

Tutoretza ez datza ikasle taldeko kide bakoitzarekin edo guztiekin soilik lan egitean; ikasleekin aritu ez ezik, erabakiak hartzean datza tutoretzak, beti ere irakasle guztien eta ikasleen gurasoen aburuak kontuan hartuta.

Ikasleei taldean integratzen laguntzeko, partaidetza-jarrerak bultzatzeko, nortasun pertsonala eratzen laguntzeko, irakaskuntza-ikaskuntzen pertsonalizazioa sustatzeko eta ikasle bakoitzaren hezkuntza-prozesuaren jarraiketa egiteko, diseinua koordinatzeko, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua praktikan jartzeko eta ebaluatzeko, ikasleen premiei emandako erantzunak koordinatzeko eta ikasleen familiekin lankidetzan aritu ahal izateko, elkarrizketaren ondorio izan behar duten erabaki batzuk hartu behar dira lehenbizi eta argi eta garbi adierazi, horiek oinarritzat hartuta, iritsitako erabakien eta praktika errealaren arteko korrelazio-maila handiagoa ahalbidetuko duten ekintza zehatzak abiarazteko asmoz.

Hona hemen ICPn bildutako tutoretza-iharduna dela-eta arestian aipatutako hausnarketa-prozesua eta erabakiak eta, hala badagokio, egindakoaren analisia erraztuko dituzten giltzarri batzuen berri:

+ Irakasleei dagokienez:

. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua diseinatu, praktikan jarri eta ebaluatzerakoan koordinazioa izatea.

- * IPak lantzen nork parte hartuko duen erabakita izatea.
- * Ziklo edo eta arlo jakin baten planifikazioa nork burutuko duen zehaztuta izatea.
- * Ziklo/kurtsoko irakasleak lankidetzan aritzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren garapena koordinatzeko.
- * Ikasle-talde baten irakasle guztien artean informazio-elkartrukeak gertatzea.
- * Ebaluazioan parte hartzen duten profesionalen artean koordinazioa izatea.

. Maila/zikloko irakasle-taldea eta laguntzako pertsonala koordinaturik egotea, ikasleen hezkuntza-premiei erantzuteko.

- * Nork parte hartuko duen zehaztea.
- * Erantzunak planifikatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko zer koordinazio izango den finkatzea (autoestimua bultzatu, integrazioa ahalbidetu, errefortzuak, Curriculum-Egokitzapen Indibidualak, etab.).

+ **Ikasleen familiei dagokienez.**

- * Gurasoekin egin beharreko bilkuren inguruko guztiak eztabaidatuta eta erabakita egotea (nork, norekin, zeri buruz, noiz, non, nola, etab.).
- * Ikasleen gurasoekin izan beharreko elkarrizketen inguruko guztiak eztabaidatuta eta erabakita egotea (nork, norekin, zeri buruz, noiz, non, nola, etab.).

+ Ikasleei dagokienez:

. Ikasleei taldean integratzen laguntzea eta partaidetza-jarrerak bultzatzea.

- * Bultzatu nahi den komunikaziorako oinarrizko trebetasunak.
- * Ikasleari taldean integratzen laguntzen dioten irakasleen jarrerak eta jokabideak.
- * Taldeko garapena bultzatuko duen ikasagelaren antolamendua.
- * Ikasleari taldean integratzen laguntzen dioten ikasleen jarrerak eta jokabideak.
- * Talde-hazkundera indartzeko estrategiak.

. Ikasleei nortasun pertsonala eratzen laguntzea, norbere burua ezagutu eta onartzen laguntzea.

- * Ikasleen autoestimua bultzatzen duten irakasleen jarrerak eta jokabideak.
- * Norbanakoen eta taldearen autoestimua hobetzeko programa.

. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen pertsonalizazioa bultzatzea.

- * Ikasle bakoitzak ikaskuntza pertsonalizatuko prozesua jarraitzeko aukera izatea, ikaskuntza-erritmo eta estiloaren arabera eta garapen-mailaren arabera.
- * Ikastetxean irakaskuntza pertsonalizatzeko prozesuei buruzko erabakiak hartzea (talde-lana, errefortzuak, Curriculum-Egokitzapen Indibidualak, etab.).
- * Ikasle bakoitzarekin lan egiteko modua ematen duten ziklo/maila edo etapako materialak izatea.

. Ikasle bakoitzaren jarraiketa burutzea ziklo/etapan zehar.

- * Ikastetxean erabilitako erregistroak nahikoak eta egokiak izatea.
- * Talde horretako irakasle-taldea osatzen duten kideen artean ikasleei buruzko informazioa elkartrukatzeko uneak aurrikustea.
- * Ziklo edo etapa batetik bestera igarotzerakoan, tutoreek ikasleei (norbanakoei edo taldeari) buruzko informazio esanguratsua elkartrukatzea.

Zenbait adibide:

"... talde-gelarekin lanean ari den irakasle-taldea hamabostean behin bilduko da astelenetan, ikasleekiko eta gurasoekiko esku-hartzeak koordinatzeko, eta hiruhilekoan bitan (erdian eta bukaeran) ikasleen aurre-ebaluaziorako eta ebaluaziorako bilerak egiteko..."

"... ikasturtean zehar bi elkarriketa izango dira gutxienez ikasle bakoitzaren gurasoekin, informazioa elkartrukatzeko, ikaslearen ikaskuntza-prozesua aztertzeke eta familia seme-alabaren hezkuntza-prozesuan parte hartzera bultzatzeko asmoz..."

"... Curriculum-Egokitzapenak diseinatzerakoan, bertako materialak landu eta sortzerakoan eta ebaluazioan, kanpoko laguntzaileek eta aholkulariak ez ezik, Curriculum-Egokitzapen hori zuizentzen zaion ikaslearekin lanean dabilen irakasle-taldeko kide guztiek ere parte hartuko dute..."

4) HIZKUNTZ TRATAERA.

Irakasle-taldeari dagokio ICPn hizkuntz trataerari buruzko erabakiak ezartzeko eginkizuna, ikasleek, etapa bukatutakoan, hizkuntz gaitasun egokia eskuratua izateko modukoa izan behar duela kontuan hartuta.

"Euskaraz eta gazteleraz ahozko nahiz idatzizko mezuak ulertzea eta adieraztea, komunikazio-asmu eta testuinguru desberdinetan" (EAEko Lehen Hezkuntzako CGD).

Irakasle-taldeak hizkuntzak direla-eta hartu beharreko erabakiek, legeak ezarritako esparrua errespetatu behar dutelarik, ikastetxearen errealitate soziolinguistikoa, ikasleen hizkuntz gaitasuna -bai taldearena eta baita norbanakoena ere- eta ikastetxeko irakasleen nahiz bestelako langileen hizkuntz gaitasuna izan behar dituzte oinarri. Hortik abiatuta hizkuntz taraterarekin zerikusia duten ekintza eta iharduera guztiak finkatutako dira, jada dauden baliabideak bikaintzeko eta proposatutako helburuak lortzeko, ikasle bakoitzaren hezkuntza-premiei erantzun gehiago eta hobeak emango baitzaizkie horrela.

Gauzak horrela, hezkuntza-egoera jakinetan eta eremu desberdinetan zein hizkuntza erabiliko den eta 1H eta 2H eskuratzeko eta bultzatzeko prozesua nola burutuko den aztertu eta erabaki beharko dugu, beraz, beti ere kontuan izanda irakasle guzti-guztiak daudela ikasleen hizkuntz garapenean inplikaturik.

Hona hemen Hizkuntz Trataerak ICPn izan beharreko garrantzia dela-eta, arestian aipatutako hausnarketa-prozesua eta erabakiak eta, hala badagokio, egindakoaren analisisa erraztuko dituzten giltzarri batzuen berri:

. Hizkuntzen erabilera alde zaurretik planteatuta, eztabaidatuta eta erabakita egotea...

- * Hezkuntza-egoera desberdinetan (ikasgelan, irakasleen bileretan, eskolaz kanpoko ihardueretan eta iharduera osagarrietan, jantokian, etab.).
- * Harreman-eremu desberdinetan (ikasleen arteko harremanak, ikasle-irakasleen artekoak, irakasleen arteko harremanak, irakasle eta gurasoen arteko harremanak).

. Arlo bakoitzean erabiliko diren hizkuntzen ingurukoak eta 1H eta 2H eskuratu eta garatzeko prozesuari dagozkionak aztertuta eta erabakita edukitzea.

- * Eredu, arlo eta irakasgai bakoitzean zein hizkuntza erabiliko den finkatzea.
- * Eredu bakoitzean arlo/irakasgai bakoitza jorrazteko erabiliko den denbora zehaztea.
- * Denbora-epe jakin batean eskolan erabiliko den hizkuntza eta ama-hizkuntza batera emango ote diren erabakitzea.
- * Eredu bakoitzean irakur-idazketaren ikaskuntzari zein hizkuntzatan helduko zaion erabakitzea.
- * 1H eta 2Hren trataerarako esanguratsuak diren esku-hartzerako jarraipideak ezartzea.
- * 2H eskuratzeko orduan gerta daitezkeen urritasunak berdintzeko hezkuntzako esku-hartzerako jarraipideak finkatzea.

- Hona hemen zenbait adibide:

"... B eta D ereduak ikasle gehienek ama-hizkuntza gaztelania denez, ustez beharrezkoa da, arrazoi bat baino gehiago dela bide (integrazteko, ulertzeko, arrazoi afektiboak direla-eta,...) ama-hizkuntza (gaztelera) eta eredu horietan gehienbat erabiliko dugun hizkuntza batera erabiltzea.

Hori horrela, ondokoa planteatzen dugu: Haur Hezkuntzan, 3 urte dituzten neska-mutikoekin, lehen hiru hilabetean, euskara eta gaztelera erabiltzea gelan, eta hortik aurrera arian-arian irakaskuntza-ikaskuntza prozesua euskaraz burutzea, irakasleei dagokienez behinik behin,..."

"... ikastetxe honetan, Lehen Hezkuntzako lehenengo kurtsuan B ereduari Haur Hezkuntza A ereduari burutu duen ikasle-kopuru handi samarra dagoenez, zera erabaki dugu, "ordu librean" B ereduko lehen kurtsoko talde hori bi talde heterogeneoetan banatzea, gehiago eta modu pertsonalizatuagoan lan egiteko asmoz..."

5) METODOLOGIA.

*"Sarritan, ikasleen aniztasuna kontuan hartzen eta euren premiei nahiz ikaskuntzak burutzeko modu bereziei erantzuten saiatzen diren aukera metodologikoak finkatzea erraz asko gaindi daitekeen tramite hutsa da, baina, aldi berean, ahazten erraza den zerbait ere bada".
(Victor Rodríguez, 1993)*

Eztabaida sakona bultzatu behar da, alde batetik kontraesanean dauden ikuskerak saihesteko eta, bestetik, dituzten berezitasunak kontuan hartu eta ikasleei hezkuntza-erantzun egokiak eskaintzen zaizkiela bermatzeko.

Hizkuntz motak eta horien euskarriak, bultzatu nahi diren komunikazio-moduak, arloetan lehentasuna izango duten ikuskerak, OCDren oinarri izango diren printzipio psikopedagogikoak eta beste hainbat gauza ezarri aurretik gogoeta egin behar da eta, ondoren, ikasleen aniztasunari erantzun egokiak emateko moduko praktika zehatzak erabaki, estrategia didaktiko koherenteak, bateratuak eta ikasleei nolabaiteko autonomia emango diotenak erabilia erantzun ere.

Hori horrela, eztabaida "teorikoetatik" abiatu eta ziklo edo eta etapan eguneroko praktikan erabiliko diren estrategia didaktiko zehatzei buruzko akordioak iristea komeni da, gure asmoen eta ikasgelako errealitatearen artean lotura izango dela ziurtatuko baitugu horrela.

ICPan bildutako metodologia dela-eta, hausnarketarako eta erabakiak hartzeko erabilgarriak izan daitezkeen alderdi batzuk aipatuko ditugu jarraian:

* Arlo guztietarako modu globalean, eta modu zehatzean arlo bakoitzean, ikaskuntza-egoera desberdinetarako hizkuntzak eta euskarriak finkatzea, ikasleen premiei hobe erantzun ahal izateko.

* Arlo guztietarako modu globalean, eta modu zehatzean arlo bakoitzean, komunikazio-egoera desberdinak kontuan hartzea (talde handiak, talde txikiak, bakarkako lana, eskola magistralak, etab.).

* Arlo guztietarako modu globalean, eta modu zehatzean arlo bakoitzean, ikuskera desberdinak eta maila desberdinekoak kontuan izatea (irakaslearen azalpenak edo aurkezpenak, ikasleen gogoeta edo ikerketa-lanak).

* Aniztasunari erantzun egokiagoa emateko aproposagoak diren ikuskerak zeintzuk diren kontuan hartzea.

* Ikasle guztien ikaskuntza-prozesua errazteko eta irakas-iharduna koherentzia handiagoz janzteko, arlo bakoitzean irakaskuntza nola burutuko den erabaki beharra dago, (irakurtzen eta idazten nola irakatsi, nola landu ahozko adierazpena, kenketak egiten nola irakatsi, nola atera izendatzaile amankomuna, nola erabili kalkulagailua, ikasteko azturak eta teknikak nola hartu eta landu, etab.).

* OCDn jasotako funtsezko printzipio psikopedagogikoak errespetatzeko eta bultzatzeko akordioak iristea (ikasleen abiapuntua ezagutzea, ikaskuntzaren esanguratasuna, lankidetzazko ikaskuntza, bitartekotza, ikuskera orohartzaileak,...).

- Hona hemen zenbait adibide:

"... ikasleen ikaskuntza-prozesua nolabait errazteko asmoz, Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. kurtsoetan eramanak dituzten kenketak egiten irakastea erabaki dugu, ondoko estrategia erebilita irakatsi ere:..."

"... ikasleen arteko elkarreginak indartzeko asmoz, honako hau erabaki dugu: hiruhilero, bi arlotan eta txandaka, ikasleek hiruzpalau kidez osatutako taldetan gai bati buruzko (eurek aukeratutako bati nahiz jarritako bati buruzko) lan bat egin beharko dute, irakasleek emango dieten gidoi baten arabera."

"... datozen urteetarako, eta Lehen Hezkuntzako 3. zikloan hain zuzen ere, lan txikiak, bakarkakoak nahiz taldekoak, egiteko euskarri informatikoen erabilpena indartuko da ("assistant" seriea), Ingurunearen Ezaguera eta Hizkuntza arloetan batik bat...".

6) ANTOLAMENDUA, BALIABIDEAK ETA KOMUNIKAZIO-HARREMANAK.

Ikasleak zer-nolako taldetan banatuko ditugunari buruz hausnartzea ezinbestekoa da, izugarritzko eragina baitute hezkuntza-prozesuan; zenbait talde-motak helburuak lortzen lagunduko edo eragotziko digu. Hori dela eta, etapako irakasle-taldeak zenbait gauza kontuan hartu eta bateratu beharko du hala nola: taldeen malgutasuna, gela-talde jakin bati atxikitzeo irizpideak, lan-taldeen eraketa, laguntzako taldeen eraketa, etab.

Era berean, ezinbestekoa da espazioak eta denborak nola banatuko diren aztertu eta erabakitzea, irakaskuntza-asmoak gauza daitezen nahi izanez gero behinik behin; legeriak ikastetxe bakoitzeko etapa eta ziklo bakoitzerako ezarritako gutxienezko denborak oinarri gisa hartu eta espazioak nola erabiliko diren baloratu eta ebatzi beharko da, kontuan izan behar delarik irakasle guztiek erabili behar dituztela espazio horiek eta arlo nahiz iharduera-mota bakoitzean egokien gertatzen diren denbora epeak, besteak beste.

"Aniztasunaren trataera ez dator bat ordutegi zurrun eta estatikoekin, ikasgela tradizional hutsera mugatzen den espazioen banaketa batekin eta eguneroko lanerako errefrentzigune bakar gisa talde-gela besterik kontuan hartzen duen taldekatze-joera batekin". (Javier Onrubia, 1993).

Aipatutakoez gain, nahitaezkoa da baita ere etapa eta zikloan erabiliko diren materialak eta baliabide didaktikoak zehaztea. Materialeak edo baliabideak ez dute nolana hikoak izan behar, aitzitik, mailakatze eta jarraikortasun egokiak dituzten materialak aukeratu behar dira, bazterkeriarik eragiten ez dutenak, inplikazio-maila desberdina ahalbidetuko duten iharduerak bideratzen dituztenak,... Nolanahi ere, irakasle-taldeak ezarri beharko ditu materialak aldeztuetatik.

Ikasleek materialez benetan baliatzea nahi izanez gero, material horiek nola antolatuko diren, nola erabiliko diren, nola indartuko diren, etab. aztertu eta erabaki behar da gainera.

"Bazterkeria saihestu eta aniztasunari benetan erantzun nahi badiogu, zera pentsatu behar dugu, zenbait ikasle burutzen ari den ikaskuntzekin zerikusia duten material jakin batzuk behar baditu (panpinak, pilotak, koloretako fitxak,...), beste zenbaitek material abstraktuagoak beharko dituela (lanerako fitxak,...) eta eragozpenak dituen beste norbaitek, berriz, material bereziagoak etab. Ikasgeletan mota guztietako materialak izanez gero, ikasleak ez dira bazterturik sentituko ikaskuntzak eskuratzeko ikaskideek erabiltzen dutenez besteko materialen bat behar baldin badute". (M^a. A. González, 1993).

Ikastetxearen baliabide pertsonalei eta horien antolamenduari dagokienez, guztiz agerikoa da adostasun-maila handia izanez gero orduan are eraginkorragoa izango dela baliabide horien lana ere. Irakas-taldea osatzen duten kide guztiek bakoitzari dagozkion erantzukizunak garbi jakin behar ditu. Hori horrela, tutoreak, irakasle espezilistek eta laguntzako irakasleek zein eginkizun izango duten finkatu behar da eta lankidetzarako moduak, espazioak eta uneak zehaztu. Horietaz gain ondokoak ere ezarri beharko dira: ikasleek arreta berezia ote duten jakiteko irizpideak, arreta berezi horretarako denbora-banaketa, arreta emateko bideak, etab.

Hona hemen ICPren antolamendu, baliabide eta komunikazio-harremanei buruz gogoeta egiteko nahiz erabakiak hartzeko kontuan izan behar den zenbait alderdi:

. Baliabide pertsonalak eta horien antolamendua.

- * Ikastetxean dauden giza baliabideak ikasleen hezkuntza-premiei erantzuteko nahikoak ote diren ikustea.
- * Ikastetxeko giza baliabideak errentabilizatuak ote dauden aztertzea.
- * Ikastetxeko irakasle gehienak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzuten parte hartzen ote duten ikustea.
- * Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei egin beharreko arreta aztertzeke, bideak nahiz horri buruz hausnartzeko edo prestakuntza eskuratzeko modu egokiak izatea.
- * Tutoreek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei egin beharreko arretan dagokien erantzukizuna euren gain hartzea.
- * Ikasle-talde batekin lanean ari diren profesional guztiak koordinatuta egotea.
- * Laguntzako irakasleak ikastetxean dabilzan ikasle guztiei emandako hezkuntza-erantzunean inplikaturik egotea.
- * Laguntza zein ikaslek behar duen zehazteko irizpide argi eta bateratuak izatea.

. Baliabide materialak eta horien antolamendua.

- * Materialak guztiek parte hartuta lantzea eta erabili nahi dituzten ikasle guztiek eskuragarri izatea.
- * Material didaktikoak hautatzeko eta erabiltzeko irizpideak irakaskuntza-ikaskuntza planteamenduarekin bat etortzea.
- * Material didaktikoak hautatzeko irizpideak finkatzerakoan, ikasle ugari, hezkuntza-premia bereziak dituztenak tartean, daudela kontuan hartzea.
- * Ikastetxeko irakasle guztiek dauden material guztiak ezagutzea.
- * Materialak antolatu eta artxibatzeke sistemak erraz asko aurkitzeko eta noiznahi erabiltzeko aukera ematea.
- * Dauden materialak egokitzea, ikasle guztientzat, hezkuntza-premia bereziak dituztenentzat barne, erabilgarriak izan daitezen.
- * Ikastetxean dauden baliabideak bikaintzea.

. Espazioen antolamendua.

- * Espazioen banaketak eta antolamenduak ikasle guztien mugikortasuna ahalbidetzea, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleena barne.
- * Espazioaren antolamenduak ikasle guztiei erantzuteko modua ematea.
- * Espazioaren antolamenduak ikasleekin talde-mota desberdinak egiteko bidea ematea.
- * Espazioaren antolamenduak profesional desberdinek ikasgelan esku hartzeko aukera ematea.
- * Espazioak malgutasunez erabiltzea.

. Denboraren antolamendua.

- * Arlo edo esperientzi eremu desberdinetako denbora-banaketa egokia izatea.
- * Denbora banatzerakoan, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak aintzat hartzea.

. Ikasleen taldeak.

- * Ikasleen taldeak malguak izatea.
- * Ikasleak kurtso edo talde jakin bati atxikitzeko irizpideak berberak izatea ikasle guztientzat.
- * Erabilitako talde-motek ikasle guztien premiei erantzuteko modua ematea.
- * Ikasle-taldeak egiteko orduan profesional desberdinek esku hartu beharko dutela kontuan izatea.

. Komunikazio-harremanak.

- * Ikastetxean diharduten profesionalen eginkizunak mugatzea.
- * Denboralizazioa zehaztea eta koordinazioaren arduradunak aukeratzea.
- * Ikasteko eragozpenak dituzten ikasleei, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei barne, laguntzeko sistemak ezartzea eta antolatzea.
- * Ikasteko eragozpenak eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko lana koordinatzea.
- * Ikasleak elkarren artean komunikatzeko espazioak antolatzea.
- * Irakasleen eta ikasleen arteko harremanak antolatzea (denborak eta espazioak).
- * Ikastetxeko Hezkuntza-proiektua lantzeko orduan gurasoek zenbaterainoko partaidetza izango duten zehaztea.
- * Gurasoekin zer-nolako harremanak izango diren finkatzea.
- * Gurasoek ikastetxeko ihardueretan parte hartzeko izango dituzten aukerak zehaztea.
- * Gurasoen elkarrekin irakasle-taldearekin lankidetzan aritzeko irizpideak finkatzea.
- * Gurasoek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekiko duten jarrera bideratzea.
- * Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen gurasoei informazioa emateko eta sentzibilizatze bideak finkatzea.

- Hona hemen zenbait adibide:

"... ikastetxe honetan ikasketa-buruak, aholkulariaren, laguntzako irakaslearen, zikloetako ikasleen eta PATeko talde profesionalanitzeko kideren baten laguntzaz, erabakiko du zein ikaslek izango duen zuzeneko laguntza eta zenbat saio erabiliko diren horretarako.. "

"... Ikasleen arteko elkarreraginak ugaltzeko eta aberasteko asmoz, ziklo honetan lau kidez osatutako taldetan banatuko ditugu ikasleak, beti ere taldeak heterogeneoak izan daitezzen saiatuko garelarik eta bi hilero aldatuko ditugularik..."

" ... ikasleren batek irakasle aholkulariaren edo eta laguntzako irakaslearen laguntza izanez gero, denboraren erdia gutxienez ikasgela arruntean emango dute lanean..."

" ... hamabostean behin ikasteko eragozpenak edo eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei emandako laguntzak koordinatzeko bilerak egingo dituzte horiekin lanean ari diren profesionalek (irakasle-taldeak, laguntzako irakasleak, aholkulariak,...).

7) EBALUAZIOA

Aniztasunaren trataera burutzeko, hezkuntza-prozesuaren martxari eta ikasleen ikaskuntzei buruzko informazio objektibo eta joria izan behar dugu lehenik eta behin, gero egoki iruditzen zaizkigun doikuntzak egiteko modua emango diguten erabakiak hartu ahal izateko. Testuinguru horretan kokatuta dago ebaluazioa, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren baitan hain zuzen ere.

" Ikasle bakoitzak denbora-epe jakin baterako (etapa, zikloa, kurtsoa, hiruhilekoa) finkaturiko helburuak zenbateraino lortu dituen ezagutzeko modua, hots, ikaskuntza-prozesuan izandako aurrerapenen berri emango diguten ebaluazio-estrategiak planteatu, planifikatu eta guztion artean eztabaidatu behar ditugu, eta, gainera, ikasleak nola ikasi duen eta zein baldintzatan irakatsi zaion jakin. Hori guztia irakaskuntza-ikaskuntza prozesu bakarra talde osoari edo ikasle-multzo jakin bati egokitzeko edo prozesu horren zenbait dimentsio egokitzeko, hala nola: lehenetsia duten edukiak hautatzeko, sarrare-erritmoa aldatzeko, iharduera eta baliabide berriak sartzeko, talde-antolamendua aldatzeko, laguntzarako neurri bereziak bultzatzeko, etab." (M^a Dolores Dolz eta Pilar Moltó, 1993).

Orain arte esandakoaren arabera, beraz, arlo bakoitzean jorratutako gaitasun eta eduki guztiak izan behar dira gogoan ebaluatzerakoan; gauzak horrela, ezinbestekoa da ebaluaziorako bide desberdinak erabiltzea, bakoitzak une, egoera eta tresna desberdinak eskatuko dituelarik.

Ikasleen ikaskuntzei dagokienez, ondokoak aztertu eta bateratu beharko dira besteak beste:

- Zer ebaluatu. Ebaluaziorako irizpideak ikastetxearen errealitateari, etapei eta bertako ikasleei egokitu behar zaizkie eta, horretaz gain, etapako irizpideak ziklo desberdinetan sekuentziatu.

- Nola ebaluatu. Irakaskuntza-ikaskuntza iharduerak edo berariazko iharduerak oinarri gisa hartuta (galde-sortak, testu-iruzkinak, lan pertsonalak edo taldeko lanak, ikasgelako koadernoak, proba objektiboak, eguneroko lanari buruzko oharak, zereginen analisia,...). Irakasle-taldeak argi jakin behar du zer tresna diren baliagarriak edukin jakin batzuk ebaluatzeko eta zeintzuk ez diren erabili behar lan horretarako. Gainera, ikasle bakoitzaren berezitasunak aintzat hartu behar ditu, zenbait ikasleren kasuan tresna batzuk besteak baino baliagarriagoak izango dira eta. Irakasle-taldearen eginkizunak ez dira hor bukatzen, ebaluazioari esker eskuratutako informazioa nola erregistratuko den eta nola aditzera emango den eta nori ere finkatzea baitagokio.

- Noiz ebaluatu, edo prestakuntzazko ebaluazioa nahiz bildumazkoa zein unetan burutuko den (hasieran, bitartean, bukaeran, beste noizbait....).

- Nork ebaluatuko duen. Ebaluazioan nork parte hartuko duen, alegia, nork koordinatuko duen, etab. Zentzu horretan gauza bat esan beharra dago, ikasleek ebaluazio-prozesuan parte hartuz gero, izugarri hobetuko direla ikasleek ikaskuntza-prozesuarekiko duten harremana, bai ezagutzei dagokienez eta baita alderdi afektiboei dagokienez ere.

Goian aipatutakoez gain, ikasleak hurrengo kurtsoa igarotzeko edo kurtsoa bukatu berria errepikatzeke irizpideak eta ebaluazioa positiboa izan ez denean hartu beharreko neurriak (zer-nolako errefortzu-neurriak hartuko diren, nork hartuko dituen, etab.) ebatzi beharko ditu irakasle-taldeak.

- * Planifikatu eta burutzeko asmoa dugun irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak arian-arian erregulatzeko balio du ebaluazioak.
- * Aurrikusitako helburuak zenbaiteraino eradietsi diren zehazteko eta ikasle guztien (hezkuntza-premia bereziak dituztenak barne) irakaskuntza-ikaskuntza prozesua berriz orientatzeko balio du ebaluazioak.
- * Ikasleen ikaskuntzak ebaluatzerakoan, emaitzen bidez, ikasleak izandako garapenaren berri izateko modua dugu.
- * Ebaluazioan ikasleen ikaskuntza-erritmo desberdinak izan behar dira kontuan.
- * Irakaskuntza-ikaskuntza sekuentzia bat hasi aurretik ikasleek zuten abiapuntuaren berri biltzen da ebaluazioaren bitartez, gero kontuan hartzeko aukera izanik.
- * Ziklo bakoitzeko arlo bakoitzerako ezarritako ebaluaziorako irizpideak ikasle guztiei moldatu behar zaizkie.
- * Talde bateko ikasleak ebaluatzeko prozedura, teknika eta tresna ugari planteatu behar dira.
- * Prozedura, teknika eta tresna desberdinak erabiltzen dira ikasle jakin batzuen ezaugarri indibidualen arabera.
- * Erregistrorako sistema argi eta arinak izan behar ditugu gure ikasleen ezaugarri desberdinen berri biltzeko.
- * Hasierako ebaluazioak (diagnostikoa) gure ikasleen abiapuntua ezagutzeko modua ematen digu, hasieratik guztien premia, interes eta ahalbideei egokitzen zaien ihardun aproposa bultzatu ahal izateko baliagarria zaigularik.
- * Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar, bestalde, ikasle bakoitzari eta taldeari buruz nahiz agertzen diren premia bereziei buruz bildutako informazioaren arabera egin beharko ditugun aldaketen gaineko orientabideak emango dizkigun ebaluazio jarraitua burutu behar dugu.
- * Azkenik, prozesuaren amaieran, bukaerako ebaluazioa burutu behar dugu, ebaluazio jarraituaren sintesi gisa edo, prozesuaren amaierako egoeraren berri izateko eta planifikazio-tresnetan egin beharreko aldaketa egokiei buruzko orientabideak jasotzeko.
- * Tutoreari dagokio bere kargu duen ikasle-taldearen ebaluazioa koordinatzea.
- * Horretaz gain, ikasleen ebaluazioan horiekin lan egiten duten irakasle guztiek parte hartu behar dute.
- * Irakaskuntza-iharduna planifikatzeko tresnak (ICP, IP, CE etab.) eta hezkuntza-iharduna bera arinago ebaluatzeko antolamendu-formulak erabaki behar dituzte irakasleek.
- * Ikasleak zikloa bukatutakoan hurrengora igaroko ote diren erabakitzeke irizpideak ezarri behar dira. Irizpide horiek ikasle guztiei aplikatuko zaizkie.
- * Txostenak, bai barrukoak eta baita ikasleei nahiz haien gurasoei informazioa luzatzeko direnak ere, egiteko jarraipide bateratuak finkatu behar dira.

Adibideak:

"... Ebaluatzeko prozedura desberdinak erabili ahal izateko, nahi duten ikasleek, ahoz egin dezakete ondoko arloetako ebaluazio-ihardueren %25..."

"... ebaluazio-aldi bakoitza amaitutakoan, ebaluazio negatiboa izan duten ikasle guztiakin hitzegin behar du irakasleak, ikasle bakoitzari ustez eragozpenak non dituen, zein akats egin edo zein urritasun duen adierazteko eta harekin eragozpen nahiz urritasun horiek gainditzeko bideak biltzen dituen lanerako plan bat negoziatzeko eta ituntzeko..."

" ... ebaluazio-bilerari dagokionez, ondoko hauen berri biltzen duen txosten labur bat aurkeztu beharko du irakasle bakoitzak idatziz:

a) Taldearen berri:

- emaitzen sintesia*
- ustez taldearen errendimenduan eragin positiboa zein negatiboa izan duten gertakariak*
- taldearen jarreraren balorazioa: lanerako gogoia, elkarbizitza eta taldekideen arteko harremanak, ikasle-irakaslearen arteko harremanak*
- taldearen errendimendua hobetzeko ekintzak*

b) Ikasle bakoitzaren berri:

- suspentso-kopuru handiena duten ikasleak*
- horien errendimendu txikiaren arrazoien analisisa*
- ikasle horiei laguntzeko proposamenak..."*

3.4.- Ikasgelaren Programazioa (IP) diseinatu eta praktikan jartzerakoan aniztasunari erantzuteko kontuan izan behar diren irizpideak

Ikasgelaren Programazioak osatzen du curriculumaren 3. zehaztapen-maila eta ICPrekin (2. zehaztapen-maila) estu lotuta egon behar du. Horrek zera esan nahi du, ondoko hauek hartu behar dituela abiapuntu gisa:

- . Ziklo horretarako ICPren proposamena
- . Lan egingo den taldea oso ongi ezagutu beharra dago (eskolan izandako prozesua, kideen ezaugarriak, taldeko giroa, etab.).

... Hori guztia honako xedea erdiesteko asmoz "curriculumean proposatutako helburuak lortzeko bidea emango diguten hezkuntza-ihardun egokia, testuinguruarekin bat datorren hezkuntza-iharduna, zehaztu ahal izateko " (Antúnez eta beste batzuk, 1992).

EAEko OCDn bilduta dagoenez, irakasleei irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak hezur-mamitzeko baliagarriak gertatu ohi zaizkien unitate didaktikoen multzoak osatzen du ikasgelaren programazioa. Ziklo-mailako irakasle-taldeari dagokio programazio hori lantzea, kontuan izan behar duelarik taldeko ikasle guztien premiak aintzat hartu direla bertan. Programazioa praktikan jartzeko, halaber, zikloko irakasle-taldeko kide guztiek lankidetzan eta koordinazio osoz ihardun behar dute eta, hasierako ebaluazioan izandako emaitzak onarri, prestakuntzazko ebaluazioak gomendatutako doikuntza-prozesu oro burutzeari ekin.

Unitate didaktikoak erabateko zentzua eta iraupen jakin bat duten talde zehatz batentzat landutako iharduera-proposamenak dira. Honakoek osatu behar dute unitate didaktiko bakoitza:

- . helburu didaktiko/berariazkoek
- . edukinek
- . ikaskuntza-egoerak
- . iharduera didaktikoek eta ebaluazio-iharduerek
- . baliabideek

Arestian ICP lantzeko urratsak edo osagaiak zirela-eta kontuan izan beharreko zenbait alderdi aipatu dugun bezalatsu, oraingoan ere unitate didaktikoa osatzen duen elementu bakoitza jorratzeko aintzat hartu behar diren arazo batzuk aipatuko ditugu, talde-gelan dagoen heterogeneotasunari arreta egin eta aniztasunari nahiz bertako hezkuntza-premia desberdin guztiei egoki erantzun ahal izateko. Hona hemen:

1) HELBURU DIDAKTIKO/BERARIAZKOAK.

"Ikasgelaren programazioan erabiltzen ditugun amaierako helburuak edo helburu didaktikoak gaitasun gisa zehazten dira. Ondokoa da gaitasuna: ikasle batek delako iharduera jakin bat burutzeko duen ahalmena (Antúnez eta beste batzuk, 1992).

Helburuak finkatzerakoan, iharduerak hertsatu gabe orientatzen saiatu behar dugu, hau da, iharduerak bide desberdinak erabilita eta maila desberdinetan burutzeko modua eman behar dugu, talde-gela osatzen duten ikasle guztientzat lanerako ardatz izan daitezen.

Hona hemen unitate didaktikoetako helburu operatiboak zehazteko orduan kontuan har daitekeen zenbait alderdiren berri:

- * Planteaturiko helburuek gaitasun-mota guztiak (ezagutzazkoak, mugimenezkoak, oreka pertsonalekoak, harremanak ezartzeko baliagarriak direnak eta gizarteratzeko egokiak direnak) antzeko neurrian garatzeko modua eman behar dute.
- * Unitate didaktikoetan bildutako helburuek lorpen-maila desberdinak ahalbidetu behar dituzte.
- * Proposaturiko helburuak ikasgelako ikasle guztiei egokituak dira. (inolako mugarik ez ezartzeko moduan planteatu behar dira helburuak).
- * Unitate didaktiko bakoitzeko gutxienezko helburuak argi eta garbi finkatu behar dira.

Hona hemen zenbait adibide:

- "Zerotik hasita milararte eta testuinguru desberdinetan, batuketak, eramanak eta guzti, ongi egitea"

Helburu hori lantzeko bide desberdinak daude, hots: ikasle-taldeak idatziz egin ditzake batuketak, paperaren gainean luzetara edo eta goitik-behera, buruz, eguneroko bizitzarekin zerikusia duten egoeretan, abakoa erabilia, etab. Ikus daitekeenez, bide desberdinak erabiltzeko modua eman ez ezik, lorpen-maila desberdinak ere ahalbidetzen dira goiko helburuaren bitartez.

- *"Luzera eta masa neurtzeko neurri esanguratsuenak bereiztea, sailkatzea eta erabiltzea, inguruneko objektuei aplikatuz"*

Helburu didaktiko horrek, era horretan idatzirik, lorpen-maila desberdinak ahalbidetzen ditu (zenbait ikaslek bereiztea besterik ez du lortuko, beste zenbait sailkatzeko gauza ere izango da eta besteak, arrazoitze logikoa erabilia, inguruneko elementu hurbilei aplikatu eta eguneroko bizitzako problemak ebazteko gai izango dira). Kontrakoa, hau da, planteamendu hertsakorra ondokoa izango litzateke: "Luzeraren eta masaren berri ematen duten neurriak erabiltzea nahitaezko betekizuna den eguneroko bizitzako problemak ebaztea".

- *"Oreka-zentzua indartzea eta lateralizazio egokia bultzatzea, norbere gorputzaren eta besteen gorputzen atalak zuzenean nahiz zeharka identifikatuz"*

Era irekian idatzita egoteaz eta lorpen-maila desberdinak ahalbidetzeaz gain, mugimezko gaitasunak, oreka pertsonalekoak eta gainerako kideekin harremanak izateko behar diren gaitasunak lantzeko bidea ematen du goiko helburu didaktikoak.

2) EDUKINAK.

"Ikasgelako iharduerak egituratzeko ardatz diren kultur bide eta ezagutzak dira edukinak" (Del Carmen L. eta Zabala A., 1992).

Edukinak hautatu eta antolatu ahal izateko hiru gauza hartu behar dira kontuan, hau da; lehenik eta behin, guztientzat baliagarriak ote diren, horiek erabilia ikasle guztiek proposatutako helburuak lortzeko modurik ote duten, alegia; bigarrenik esanguratsuak ote diren, ikasleentzat benetan erabilgarriak ote diren; eta azkenik, ikasleen alde aurretiko ezagutzeekin eta garapen-mailarekin bat ote datozen.

Hasteko, funtzionalagoak diren eta, beraz, igurikapen pertsonalei erantzuteko egokiagoak diren edukinak aukeratu beharko dira, gero, ikaskuntzetarako ezinbestekoak direnak eta bultzatu nahi diren gaitasunen garapenen maila ahalik eta handiena ahalbidetzen dutenak. Oinarrizko edukin horiek talde osoaren lana egituratzeko oinarri amankomuna izango dira, are, ikasteko eragozpenak dituzten ikasleek egin beharreko lana ezartzeko abiapuntu ere izango dira, azken kasu horretan egokitzapenak egin behar direla ahaztu gabe, ordea (baliabide gehiago, denbora-epe malguagoak, etab.).

Aipatutako oinarrizko helburuez gain, bigarren multzo bat ere badago, helburu osagarriek osatutako multzoa, hain zuzen ere. Zenbait gai sakontzeko erabiliko ditugu helburu osagarri horiek.

Unitate didaktikoetako edukinak zehazteko orduan, ondoko alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

* Unitate didaktikoetan hautatutako edukinek baliagarriak izan behar dute, hau da, ikasle guztiei proposatutako helburuak lortzeko baliagarri gertatu behar zaizkie.

* Unitate didaktikoetan hautatutako edukinek esanguratsuak izan behar dute ikasle guztientzat, hau da, ikasleen errealitatearekin zerikusia duten edukinak izan behar dute.

* Unitate didaktikoetan, edukin guztiak neurri beretsuan ikasi eta landu behar dira (kontzeptuakoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak).

* Unitate didaktiko bakoitzeko gutxienezko edukinek argi eta garbi finkatuta egon behar dute.

Zenbait adibide:

- *"Aurrean ez dauden objektu edo pertsonak ahoz deskribatzea"*

Zenbait ikaslerentzat hertsakorra edo eragozpenez josia nahiz ezinezkoa izango da agian prozedurazko edukin hori. Gauzak horrela, edukina honela planteatuz gero "Aurrean dauden ala ez dauden objektuak eta pertsonak deskribatzea", ikasle guztiei parte hartzeko aukera emango zaie.

- *"... hona hemen unitate didaktikoan bildutako edukinen berri:*

. *Ahozko mintzaira eta irudiak konbinatzen dituzten mezuak*

. *Ahozko testuak: azalpenak, deskripzioak, narrazioak*

. *Testu idatziak: narrazioak, deskripzioak, elkarrizketak*

. *Hiztegia.."*

Goikoak besterik biltzen ez dituen unitate didaktiko batean jarrerazko edukin batzuk ere sartu beharko lirateke, hala nola: komunikazio-elkartrukean jarraitu beharreko arauak buruzkoak, hizkuntzek premiak asetzeko duten garrantziari buruzkoak, ahozko nahiz idatzizko adierazpenak koherentziaz, egokiro eta zuzen egin behar direla erakusten digutenak, etab.

3) IKASKUNTZA-EGOERA.

Batetik metodologi estrategiek, bestetik hezkuntza-harremanen giroak eta, azkenik, ikasleek esanguratsuak diren edukinak ikasteko nahiz proposatutako helburuak lortzeko iharduera desberdinek baldintzatzen dute ikaskuntza-egoera.

Prozesua burutzeko, ikasgelan egin beharreko iharduerak zehazteko eta iharduera horien ordena edo sekuentziazioa finkatzeko bidea ematen diguten irakaskuntzarako prozedurak dira metodologi estrategiak. Hona hemen zenbait: lankidetzan aritzea,

problema ebaztea, proiektu ikastea, eskola magistralak, interesguneak, fitxen lanketa, programaturiko irakaskuntza, landa-lanak, simulazioak, etab.

Behin baino gehiagotan esan ohi denaren kontra, ez da metodo on soil bat, ez eta sekuentzia egoki bakar bat ere; aitzitik, bide ugari dago. Materialak, irakaslea, ikasleak, helburuak edo testuingurua kontuan hartuta, interesgarriagoa gerta daiteke bide horietariko bat ala bestea jarraitzea; zenbaitetan ere helburu eta edukin berberak metodo desberdinak erabilia jorratzea komenigarria izan daiteke, ikasle baten edo eta ikasle-multzo baten ezaugarri bereziek hala eskatuz gero, esate baterako.

"Hori horrela, programazioa egiterakoan, albo batera utzi behar dira metodologi planteamendu homogeneotzaileak. Aniztasunaren trataerari heltzeko bide benetan pribilegiatua bada ere, ezin dugu planifikazio-aldian baztertu eta gero heldu, modu inprobisatuan, ikasgelan oinarritako edukin batzuk ikasteko eragozpenak sortzen direnean". (Instituto Andaluz de evaluación, 1994).

"Planifikazioak edukin berriak sartzeko erritmoak aldatzeko modua eman behar digu, eta baita antolamendua eta sekuentziak aldatzeko bidea ere. Hori egin ahal izateko edukin batzuei besteei baino lehen handiagoa eman beharko diegu, ikasleen gaitasun eta interesei hurbiltzeko asmoz, zenbait edukinen ikuskera aldatu beharko dugu, eta besteak indartu nahiz zabaldu". (EAEko OCD, 1992).

Programazioak zehazteko orduan, honako elementu hauek har daitezke hausnarketagai nahiz erabakiak hartzeko oinarri gisa:

- * Ikaskuntzen abiapuntua aldez aurretiko ezagutzak dira, ezagutza horiek aldatu egiten dira informazio nahiz planteamendu berriak direla medio, ideia edo formulazio berriak sortzen direlarik horrela.
- * Ikaskuntzak elkarreaginezkoak badira eta taldean bertan nahiz ikasle-irakasleen artean komunikazio-harreman egokiak finkatzeko modua ematen dute.
- * Irakasleak dira ikaskuntzen bitartekari eta erreferente, hots, hasierako baldintzak aldarazten dituzten ikaskuntza-iharduerak planteatzen dituzte, eta eratutako ezagutza berriak zabalagoak, sakonagoak eta joriagoak izan daitezen laguntzen.
- * Barruko eta kanpoko iharduerak bultzatu behar dira.
- * Ikaskuntzek funtzionalak izan behar dute.
- * Unitate didaktikoen plangintzak edukin berriak sartzeko erritmoak aldatzeko modua eman behar du, eta baita horien antolamendu eta sekuentziatzioa mutatzekoa ere, edukin batzuei besteei baino lehentasun handiagoa emateko, ikuskera aldatzeko eta batzuk indartzeko zein besteak zabaltzeko aukera eman behar du, azken finean.
- * Talde-gela osatzen duten ikasleen artean errespetu, tolerantzia eta balorazio-giroa sortu behar da.
- * Irakaskuntza-ikaskuntza egoeretan garrantzi handiagoa du lankidetzak lehian aritzeak baino.
- * Laguntzako irakasleak eta beste irakasleek ikasgela arruntean esku hartzeko aukera izan behar dute.
- * Ikasgelan esku hartzen duten irakasle guztiek talde-lanean aritu behar dute.
- * Irakaskuntza-ikaskuntza proposamena planifikatu eta garatzerakoan, kontuan izan behar dira ikasle guztien interesak.
- * Ikasle guztiek aurrera egin eta arrakasta izan dezaten saiatu beharra dago.
- * Ikasgelan errefortzu ugari eta egokiak erabili behar dira, ikasleen araberako errefortzuak, hain zuzen.

Zenbait adibide:

- "... Elkarrizketak, eztabaidak, etab. burutzeko orduan, ikasle guztiek ahozko elkartrukeak ahalbidetu eta erraztuko dituzten azturak eskuratzeko gure esku dagoena egin behar dugu, besteak berbetan ari direla ez eteten, hitzegiteko txanda eskatzen, besteei entzuten, etab. irakatsi behar diegu eta besteen proposamenak onartzeko nahiz norbere pentsamoldea aldatzearen aldeko jarrera indartu..."

- "... proposatutako iharduerak egiterakoan, lehentasuna izango du ikasleek elkarri laguntzeak eta talde guztietako kide guztiek parte hartzeak, ahal duten neurrian behinik behin,..."

- "... unitate didaktiko honetan, arloko irakaslea eta laguntzako irakaslea arituko gara ikasleekin lanean, ikasgela arruntean aritu ere. Zenbaitetan laguntza indibidualizatua emango diegu gehien behar duten bi haurrei, bestetan, berriz, planteatutako iharduerak burutzeko sortuko diren taldeei lagunduko diegu..."

4) IHARDUERA DIDAKTIKOAK.

"Metodologi estrategiak edo ikaskuntza-esperientziak burutzeko modu aktibo eta ordenatua dira iharduerak. Estrategia jakin batzuek (proiektua, problemak ebaztea, fitxak lantzea, ikerketa, interesguneak, eskola magistralak, eta abarrek) zenbait iharduera sekuentziatu eta egituratu inplikatuak dute beti". (Imbernón, 1992).

Ikasgelan ikasteko erritmo, motibazio-maila, interes etab. desberdinak daudenez, zera pentsa daiteke, unitate didaktiko bakoitzean lantzeko iharduera ugari eta desberdinak asmatu behar direla (aurkezpen-motibaziorako iharduerak, aldez aurretiko ezagutzak ebaluatzeko iharduerak, edukinak garatzeko iharduerak, errefortzurako, zabalkuntzarako, laburtzen ikasteko eta transferentziarako iharduerak), ikasle guztiek bertan planteatutako edukinak eskuratzeko eta edukin horiek exijentzia-maila desberdinak aintzat hartuta landu ahal izateko asmoz.

Unitate didaktikoetan planteatutako ikaskuntza-iharduerak direla-eta, hona hemen hausnartu eta erabakiak hartzeko kontuan izan behar diren zenbait punturen berri:

- * Gai bati ikuskera desberdinak emateko edo gai hori maila desberdinetatik ikasteko iharduera desberdinak planifikatu behar dira.
- * Ikasgelan aldi berean iharduera desberdinak burutzeko modua izan behar da.
- * Talde handitan, talde txikitan, binaka, bakarka, etab. egiteko moduko iharduerak planifikatu eta landu behar dira eta, gainera, iharduera horiek guztiak gelan antzeko denbora-epean egiteko eran banatu behar dira.
- * Behar dituzten ikasleei eskaintzeko errefortzurako iharduerak nahiz sendotze-iharduerak planifikatu behar dira.
- * Irakaskuntza-ikaskuntza prozesu berriari ekin aurretik, ikasle guztien alde aurretiko ezagutzak zehazteko iharduerak planifikatu behar dira.
- * Ikasgelan planifikatu eta garatutako irakaskuntza-ikaskuntza iharduerak elkarreagin aberats eta ugariak ahalbidetu behar dituzte ikasleen artean eta ikasle-irakasleen artean.
- * Iharduera didaktikoetan bi gauza bultzatu behar dira: alde batetik kanpoko iharduerak (manipulazioa, jolasak, esperimantazioa, berbalizazioa, etab), eta bestetik barruko iharduerak, egindakoak gogoeta egiteko bidea ematen dutenak (aldez aurretiko kontzeptuak eta errealitatean gertatzen dena alderatzea, ondorioak ateratzea, aldez aurretiko ideiak zenbateraino aurreratu diren aztertzea, etab.).
- * Iharduera interesgarriak proposatu behar dira, ikasle guztientzat motibatzaileak izango diren iharduerak, alegia.

Adibideak:

- "... Binaka nahiz hirunako taldetan, lekutu/behatu/kokatu erpinak, alboak, barruko angeluak, kanpoko angeluak, diagonalak, altuerak,... irudiak marraztu, emandako nahiz lehendik egindako irudietako elementuak kolore desberdinez margotu, elementu horien izenak adierazi, egunero erabili ohi diren elementuetan aurkitzen ote diren esan,..."

- "... J. eta F.ren kasuan ondoko aukerako iharduerak planteatu ditugu laguntza irakaslearekin batera burutzeko:

Lerroak, poligonoak, gorputzak sailkatu/bereiztea, paperean marraztea, objektu desberdinen aristak, ertzak markatzea, gauza errealak ikasitako irudietan identifikatzea, gauza horien tamaina, eitea eta neurria kontuan hartzea..."

5) EBALUAZIO-IHARDUERAK.

"Ebaluazio-iharduerak, ikaskuntza-ihardueretan tartekaturik, ikasleen ikaskuntza eta hezkuntza-iharduna etengabe doitzeko orientabideak ematen dizkigute". (EAEko OCD).

Ikasleen ebaluazioari dagokionez, logikoa dirudi edukin nuklearrak edo funtsezkoak kontuan hartzea, hau da, ikaskuntza funtzionalenak ahalbidetzen dituzten edukinak, beste batzuk eskuratzeko ezinbestekoak direnak edo eta bultzatu nahi diren

gaitasunak gehiago garatzeko aukera ematen dutenak kontuan hartzea. Alabaina horrek ez du esan nahi edukin osagarriak albora utzi behar direnik, ez eta gutxiago ere.

Ikasgeletan aurkitu ohi dugun aniztasunaren erruz, ez ditugu emaitza bateratuak lortuko, hortaz, ikasle bakoitza ebaluatzeri ekin beharko diogu, haren hasierako egoera eta ezaugarri pertsonalak aintzat hartuta ebaluatu ere.

Gaitasun, ikasteko estilo, garapen-maila, erritmo, etab. desberdinak dituzten ikasleak daudenez gelan, guztiek ez diete berdin erantzungo ebaluatzeko erabiltzen ditugun prozedurei eta, horrexegatik, ebaluatzeko metodo desberdinak, ikasleen berezitasunak kontuan hartzen dituzten metodoak planifikatu eta erabiltzea komeni da.

Unitate didaktikoen ebaluazioa planifikatzen ari garela ondokoak hartu beharko ditugu kontuan besteak beste:

- * Ebaluazio-iharduerak ikasleen alde aurretiko ideien berri izateko planteatu behar ditugu, edozein irakaskuntza-ikaskuntza prozesu berriri ekin aurretik.
- * Ebaluazio-iharduerak, ikaskuntza-ihardueretan tartekaturik, ikasleen ikaskuntzak berrorientatzeko eta doitzeko balio dute.
- * Ebaluazio-iharduerak, ikaskuntza-ihardueretan tartekaturik, irakasleen iharduna berrorientatzeko eta doitzeko balio dute.
- * Edukin bat ebaluatzeko iharduera desberdinak planteatu, eta egoera desberdinetan aurkeztu behar ditugu.
- * Koebaluaziorako eta autoebaluaziorako iharduerak dituzten inplikazioen jakinaren gainean egon behar dugu, ahalbidetu egin behar ditugularik aukera izanez gero.
- * Talde-gela bateko ikasleak ebaluatzeko prozedura, teknika eta tresna desberdinak planteatu behar ditugu.

Adibidez:

-"... Egin ondoko ariketak:

- . Marraztu ikasgela eta adierazi erpinak non dauden.*
- . Marraztu karratu bat, erronbo bat eta triangelu bat eta egin ahal diren diagonal guztiak.*
- . Alboetan 5 cm duen kubo baten moldea marraztu, ondoren moztu eta eraiki.*
- . Triangeluei buruzko kontzeptuzko mapa egin.*
- . Marraztu angelu zuzen bat eta 30°ko angelu bat eta batu, bai grafikoki eta baita numerikoki ere.*
- . Ondoko angeluak ordenatu, handienetik hasita txikieneraino: laua, zorrotza eta kamutsa.*
- . Ondoko angeluak ordenatu, handinetik hasita txikieneraino : 30°, 98°, 14° eta 125°.*

. Zentimetroak neurtzeko erregela hartu eta ikasgelako axuleiu baten edo matematikako liburuaren azalera neurtu..."
. Marraztu 5cm-ko alboak dituen erronbo bat. Perimetroa eta azalera kalkulatu.

6) BALIABIDEAK.

Iharduera desberdinak planteatu ez ezik, baliabide ugari ere planteatu beharko ditugu, iharduerak horien bitartez bideratu ohi ditugu eta. Gainera, gero eta baliabide gehiago erabiliz gero, orduan eta erantzun egokiagoak emango dizkiegu ikasgelan aurkitutako berezitasunei.

Oro har, irakaskuntza-ikaskuntza harremanak -hitzaren bidez soilik gauzatzen ez bada behinik behin- ezinbestekoak ditu baliabide didaktiko jakin batzuk. Gauzak horrela, baliabide horiek egokiak diren ala ez ere planteatu beharra dago, hots: harreman horien bitartez ikasleen bilakaera-unearen oinarritzko ezaugarriak kontuan hartu eta errespetatzen ote diren, ikaskuntza funtzionalak bultzatzen ote diren, ICPren planteamendu orokorrekin bat ote datozen, etab.

Iharduera bat baliabide desberdinak erabilita planteatu daiteke; are, sarritan, iharduera horren konplexutasun-maila erabiltzen diren baliabideen menpe dago. (Behar bada, zenbait ikasleri errazagoa gertatuko zaio osotasun baten zatiak bereiztea euskarri gisa gardenkiak erabilita testu bat erabilita baino).

Halaber, iharduera eta baliabide ugari erabiltzen direnez, espazio-denboren antolatzenak malgua izan behar du ezinbestez eta ikasleen taldeak antolatzerakoan horien lehenespenak eta erritmo, gaitasun, motibazio eta abarren arteko desberdintasunak hartu behar dira kontuan nahi eta nahi ez.

Hona hemen eztabaidatu eta erabaki beharreko arazo garrantzitsu batzuk:

- * Ikasgelan talde-gelako kide guztiak erabiltzeko bezain beste material ote dagoen eta material hori erabilgarria ote den.
- * Ikasgelarako materialak hautatzerakoan eskaintzen dituzten doitzeko eta aniztasunaren trataerarako aukerak kontuan izan ote diren.
- * Materialak doitu ostean, hezkuntza-premia bereziak dituztenek ere erabiltzeko egokiak ote diren.
- * Aukeratutako materialak ikasle guztientzat erakargarriak eta motibatzailerak ote diren.
- * Erabilitako materialek ikaskuntza aktiboa, ikerkuntza eta ikaslearen autonomia bultzatzen ote duten.
- * Erabilitako materialek talde-mota desberdinetan erabiltzeko aukera ematen ote duten.
- * Ikasgelako espazioaren banaketak ikasle guztien mugikortasuna ahalbidetzen ote duen.
- * Ikasgelako espazioaren antolamenduak lan desberdinak aldi berean egiteko modua ematen ote duen.
- * Ikasgelako espazioaren antolamenduak ikasleak hartu eta talde-mota desberdinak eratzeko bidea ematen ote duen.
- * Denbora antolatzearen kontuan hartzen ote den hezkuntza-premia bereziak dituzte ikasleek denbora gehiago behar izaten dutela oro har.
- * Talde-malguak egiteko modurik ba ote dagoen.
- * Ikasgelaren antolamenduak bi irakasle edo gehiagok parte hartzeko aukerarik ematen ote duen.

Hona hemen adibide batzuk:

- "... Unitate didaktiko honetan, testuliburuko testuak erabili ez ezik, ikasgelako liburutegiko 4, 5, 6 eta 8. aleak ere erabiliko ditugu, grafia desberdinak sartzen joateko, ikasleak arian-arian barneratu ditzan..."

- "... X liburuko 6. gaiko 12, 13, 14 eta 15. fitxak errefortzurako iharduera gisa erabil daitezke, aurrikusitako helburuak erdiesten ez dituzten ikasleei laguntzeko,... bestalde, zabalkuntzarako iharduera gisa honako hauek planteatu daitezke:

. Talde txikitan errefrauzerrenda bat egitea -30 baino gehiago ez-irakurtzea eta gelako gainontzeko ikaskideekin eztabaidatzea.

. Aipatu errefrauetariko bi antzeztea..."

3.5.- Curriculum-Egokitzapenak

Murgilduta gauden erreforma-prozesuan hobetsitako curriculum-eredu erdi-ireki, malgu, orientatzaile eta arauemalea irakasleek hezkuntza-iharduna burutzen duten testuinguruaren ezaugarriei moldatzeko bezalakoa da (ikus 13. orrialdeko koadroa).

Gauzak horrela, irakaslea, alde zuzenetik finkatutako plan batzuen betetzailer soil izan gabe, bere ihardunaren protagonista bilakatzen da, curriculuma moldatu eta nolabait bideratzeko lana hartzen du bere gain, ikuspegi bikoitza duelarik lan horrek: alde batetik hausnartu eta erabakiak hartzen dituen irakasle-taldeko kide da eta, bestetik, erabaki orokor horiek abiapuntu, Oinarrizko Curriculum-Diseinua ikastetxearen, talde-gelaren eta ikaslearen errealitateari moldatzen dien subjektu aktiboa.

Curriculumaren zehaztapen-maila desberdinak zentzu zabalean uler daitezke, EAEko OCD oinarri gisa eta hezkuntza-premia bereziak dituen haurra helmuga gisa dituen doikuntza-prozesuaren aldi edo faseak bailiran.

Zenbait kasutan egokitzapen-prozesu horiek eskasak gerta daitezke eta ikasle batzuek eskolan dauden artean, etengabe nahiz aldi batean, agertu dituzten hezkuntza-premiei erantzuteko baliorik gabeak. Ikasle horientzat curriculumaren-egokitzapen indibidualduak landu beharko ditugu; egokitzapen horiek handiagoak edo txikiagoak izan daitezke, haurrak eskolatuak dauden taldearen curriculumean jasotakoetatik urruntzen diren graduaren arabera.

Curriculumaren-Egokitzapen Indibidualdua (CEI) honakoa da: ikasgelako curriculumeko elementu bat edo gehiago aldatzeko prozesua, ikasle jakin baten hezkuntza-premiei erantzuteko asmoz aldatzen ditugularik elementu horiek. Definizioak berak erakusten digunez, CEIek ondoko ezaugarri hauek dituzte besteak beste:

- Curriculumaren-Egokitzapen Indibidualdua irakasleek ikasle bakoitzaren hezkuntza-premiei erantzuteko erabil dezaketan estrategia bat da.
- Printzipioz, edozein curriculum-egokitzapen egiteko erreferentzigunea ikaslea eskolatu dagoen talde-gela da. Hau da, ikaslearen egoera baloratzen denean, taldearen curriculuma hartzen da oinarri gisa, aldatetak ere taldearen curriculuma abiapuntu gisa hartuta egin beharko dira, beraz.
- Curriculumaren-egokitzapenak dokumentu gisa bildu behar dira, eta ondokoak jaso behar dira bertan: curriculuma, hezkuntza-erantzunaren antolamendua eta hezkuntza-premia bereziak dituen ikasleak denbora-epe jakin batean izango dituen laguntzak.

Curriculumaren-Egokitzapen Indibidualduari buruz hitz egiten denean, kontuan hartzeko aspektu garrantzitsua da, egiterakoan jarraitutako prozesua eta erabilitako curriculum-erreferentzia, bai ikaslearen gaitasunak zehazteko zein bere curriculumaren diseinurako. Jarraitzen den prozesu eta erabiltzen den curriculumaren arabera, egokitzapen kurrikularrak, gehiago edo gutxiago egongo dira loturik hezkuntz behar bereziko ikasle taldearen curriculumari, edo talde ikasleentzako planteiatutako lanetik at norberarentzako programak izango dira.

Curriculum-egokitzapenak ez dira egiten taldeko curriculuma zehaztu eta gero, baizik eta taldekoa egiten den bitartean, hau da, honetan kontuan izan behar dira ikasle konkretu baten ezaugarriak eta beharrak.

Ziklo konkretu bateko ikasle-talde baten barruan norbaitek, bere hezkuntza-premia bereziak direla eta curriculumaren egokitzapen bat esanguratsua ala ez beharko balu, gelako programazioaren lehenengo zehaztapen-mailan kontuan hartuko da.

Gelako programazioaren lehenengo urrats honetan hartzen diren erabakien arabera, -biurtero komenigarria litzateke egitea- unitate didaktikoak zehaztuko lirateke, gelako programazioaren bigarren urratsa, holantxe diseinatu eta garatzerakoan kontuan hartuko da ikasleren bat edo ikasle-talderen batek arlo bateko edota batzuetarako helburu, eduki, ekintza, etabar ezberdinak izango ditu, eta unitate didaktikoak eratzen dituzten zenbait elementuetan kontuan hartuko dira.

Unitate didaktikoak, arloka antolaturik zein globalki, helburu didaktikoak, edukinak, irakaskuntza egoera, ekintza didaktikoak eta ebaluatzeak, baliabideak etabar dira, gelako programakuntzaren lehenengo zehaztapen-mailan ikasle guztien eta bakoitzaren helburuak lortzeko.

Ziklo bakoitzaren hasieran interesgarria litzateke, gelako irakasleak baliogarria izan daiteken taldeko informazioa biltzea (aurreko zikloaren txostenak, izandako irakaske edota tutorearekin elkarrizketa, gurasoekin, ea.) eta abiapuntu egoera aztertu; hau denekin, Ikastetxe Curriculum Proiektua ziklo mailan taldeko errealitateari egokitu (Ikasgelaren Programazioaren lehenengo zehaztapen-maila) non behar diren curriculumaren-egokitzapenak sarturik egongo lirateke.

Zikloa hasten ari den ikasle-taldearen ezagutza aldeztu aurretiko baldintza da curriculumaren egokitzeko, hots irakasleak egin beharko duen lehenengo lana izango da talde horrekin dihardutzeko. Hasierako ebaluaketari buruz hitz egin genezake, zikloaren lehenengo hilabetetan eraman beharrekoa non helburua gelako ikasle guztientzako, -hezkuntza premiak berezidunak barne- curriculum-plangintza aisetzea litzateke.




Hau holantxe denez, eta gela horretan hezkuntza premia bereziak dituen ikasle bat egongo balitz, aipatutako ikasgelaren programazioaren prozesuan, eta hau osatzen duten osagaietan, beharrezkoak izan daitezken moldaketak, planteiatuko dira, hau da, arloetako programazioen helburu, eduki, ebaluatzeak erizpide, eta gainontzeko neurri espezifikoetan, berari ere, aldeztu aurretik zehaztutako helmugak, lor ditzala.

Era honetan jokatu, ikasle guztien eta norberaren beharren arabera ikasgelaren programakuntza planteiatzen da, eta unitate didaktikoen diseinu eta garapena erraztu egiten da.

Ziklorako gelaren programazioaren zeharkako ebakidura, ikasle konkretu batentzako, hau da helburuak, edukinak, ebaluatzeak erizpideak, eta kontuan hartzeko beharrezkoak izan daitezten neurri bereziak, Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetako curriculum-egokitzapen aginduan curriculum-egokitzapen esanguratsuetako dokumentazioan agertu behar den informazioaren atalik handiena litzateke:

- . Egokitzapena egiten zaion ikaslearen datuak, baita inplikaturiko profesionalena ere, erreferentzi-zikloa eta ikaslea eskolatua dagoen kurtsoa zehaztuz.
- . Ikasleak bere erreferentzia-taldeari dagokionez dituen gaitasunak.
- . Ikaslearen hezkuntza-behar berezien definizioa.
- . Jarraituko duen curriculum egokitu edo berezia, zikloan zehar landu beharreko arlo edo esperientzi-eremuak, helburuak eta edukinak zehaztuz.
- . Ebaluazioa egiteko erabiliko diren une, modu eta irizpideak, eta halaber egokitzapenaren beraren jarraitetaren plangintza.


IKASTETXEAREN CURRICULUM PROIEKTUA (ICP)



Curriculumaren-egokitzapen Indibidualdu bat lantzerakoan, curriculumaren beste edozein egokitzapen egiterakoan bezalatsu, ikasleari buruzko nahiz hezkuntza-testinguruari buruzko zenbait erabaki hartu beharko dugu une jakin batzuetan, emandako hezkuntza-erantzuna haren premiei ahal bait gehien egokitzea nahi badugu bederen.

Aipatu erabakiak hartzeko orduan ikaslearen hezkuntza-prozesuan inplikaturik dauden pertsona guztiek parte hartu behar dute, guztien artean landutako hezkuntza-erantzuna are koherenteagoa eta eraginkorragoa izango baita. Hori horrela, prozesua osatzen duten fase ezberdinen eta burutu beharreko eginkizunen nahiz hartu beharreko erabaki nagusien berri emango dugu jarraian.

CEI bat lantzeko prozesua osatzen duten faseak:



Zentzu estuagoan definitu nahi izanez gero, zera da Curriculum-egokitzapena, ikasle baten hezkuntza-premia bereziei erantzuteko iharduna diseinatzeko irakasleek erabiltzen duten estrategia, ikasgelako gainerako kideei dagokien curriculumeko elementu bat edo gehiago aldatzen dutelarik bertan.

Lehenik eta behin, oso esanguratsuak ez diren elementuak aldatzen saiatu behar dugu, hala nola, ikaskuntza-egoera, iharduerak, baliabideak, denbora eta ebaluazioa. Aurrekoak aldatzea nahiko ez bada soilik burutuko dira edukin eta helburuen egokitzapenak.

Curriculum-egokitzapenek ikaslearen curriculumean duten eragina kontuan hartuta, prozesu jarraitu bat direla esan daiteke, prozesu horren mutur batean oso esanguratsuak ez diren curriculum-egokitzapenak leudeke eta bestean, berriz, curriculum-egokitzapen esanguratsuak.

* **Oso esanguratsuak ez diren curriculum-egokitzapenak:** curriculumeko elementu bati edo gehiagori eragiten dietenak, beti ere ikaslea eskolatuta dagoen zikloa erreferentzi gisa hartzen dutenak.

* **Curriculum-Egokitzapen Esanguratsuak:** ikaslea eskolatuta dagoenez bestelako ziklo edo etapa bat erreferentzi gisa dutenak.

4.- ANIZTASUNARI ERANTZUNGO DION HEZKUNTZAKO **ESKU-HARTZEA BURUTZEKO IRADOKIZUNAK**

Ondoren aipatuko ditugunak eguneroko hezkuntza-iharduna osatzen duten hainbat arazo dira eta irakasleen ihardunari buruzko jarraipide batzuk eskaintzea besterik ez dute helburu. Zentzu horretan, ikasle guztien ikaskuntza-prozesuetan aurrerapen txiki eta etengabeak ahalbidetzea espero dugu.

4.1. Irakaslearen eginbeharrez.

** Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan bitartekari gisa aritu ez ezik, prozesu hori bideratzen du irakasleak.*

*** Ikasleei euren ikaskuntzaren protagonista izaten laguntzen die.**

Ikastea nahi duguna eta alde zuzenetik dakitena lotzea partaidetza bultzatzeko tresna guztiz eraginkorra da.

Jolasak, ustegabeak, txokoak, proiektuak lantzeko orduan parte hartzea bultzatzea, lortu nahi dena jakinaraztea, etab. motibatzaileak eta hezkuntza-ihardunean gogo biziagoz parte hartzeko estrategia interesgarriak izan daitezke.

*** Laguntza pertsonalizatua eskaintzen die.**

Irakasleak ahalik eta laguntza indibidualizatuena eskaintzen saiatu behar du, hori dela eta, burutuko duen esku-hartzeak ikasle bakoitzak dituen eragozpenen arabera izan behar du.

Aipatutako laguntza indibidualizatu hori emateko orduan, beraz, bi gauza indartu behar dira, hots, alde batetik irakasle-ikasleen arteko elkarrekin eta bestetik ikasleen artekoak; azken elkarrekin horiek, antzeko ikaskuntza-egoerak izanik eta informazioak, iritziak, estrategiak nahiz irtenbideak aldatzeko abagaduneak izanik, benetan aberasgarriak gertatuko baitaizkie ikasle guztiei.

Irakasle-ikasleen arteko elkarrekin dagokienez, bestalde, irakasleak "dosifikatu" egin behar ditu nolabait, ikasleak beste aukera bat besterik ez direla -eta ez aukera bakarra- oharatzeko.

Laguntza berezia behar duten eta eskola-ordu batzuk laguntzako irakaslearekin nahiz aholkulariarekin ematen duten ikasle kasuan, askoz eraginkorragoa izan ohi da eskola-ordu horietan burututako zereginak ohizko ingurunean, hau da, ikasgela arruntan egitea.

Hori horrela, irakasle laguntzaileak ikasgela arruntera joan beharko luke bere lana egiteko, eta, bide batez, gelako gainerako kideekin elkarreaginak izatearen eragin positiboaz baliatu beharko luke, ikaslea binaka nahiz talde txikitik aritzera bultzatuz. Hori eginez gero, ikaslearekin zuzenean lan egin ez ezik, ikaslea dagoen taldearekin lan egin dezake edo esku-hartzea ikasle guztiengan hedatu, beti ere tutorearekin batera ihardunda, jakina.

*** Programazioaren malgutasuna.**

Guztiek ikaskuntza-prozesuan indar handiagotzat parte hartzeko tresnarik egokiena, ezbairik gabe, programazio malgu, egokigarri eta posibilista, ikasleentzat proposamenak, interesak eta premiak biltzen dituen programazioa da.

*** Giro egokia sortzen du.**

Elkarri ezagutzea, konfidantza, besteak onartzea, elkarriketa eta lankidetzaren giro egoki eta lasaia sortzen duten osagaiak dira. Irakasleak jarrera eta jokabide horiek guztiak bultzatu behar ditu, ikasgelako dinamikan txertatzeko eta autoestimua eta gainontzekoekiko errespetua idartzeko.

*** Ikaskuntza-prozesuari buruzko informazioa eman behar die ikasleei.**

Ikasleak euren aurraperen eta eragozpenen berri izan dezaten, eta prozesu hori berriz bideratzeko modua izan dezaten, honakoak bultzatu beharko ditu irakasleak:

- . Komunikazio jario eta irekia.
- . Aurrera egitera bultzatuko dien komunikazio motibatzaile eta posibilista.
- . Erroreak zuzendu eta aurrera egiteko modua emango duten jarraipide garbiak nahiz iradokizunak ekarriko dituen komunikazio argigarria.

*** Irakaslea irakasle-talde bateko kide da.**

Curriculum-diseinua ikastetxearen, ikasgelaren eta ikasle guztien errealitateara egokitu behar horrek rol "berri" bat ematen dio irakasleari. Bere ihardunaren protagonista bihurtzen da, ihardun hori bi alderdi desberdinetatik abiatuz ikus daitekeelarik:

- Kolektiboa: ICP egin behar duen taldearen kide gisa.
- Indibiduala: bera izango baita, taldeak hartutako erabakietatik abiatuz, programazio orokor hori bere gelaren errealitateara egokituko duena.

Irakasleentzat eginkizun berri horrek, zenbait elementu eskatzen ditu:

- iharduketa indibidualak gaindituko dituen barne antolaketa bat
- gogoeta kolektiboaren ondorio gisa sorturiko mentalitate profesional amankomun bat
- irakasle bakoitzaren autonomia hezkuntza-ihardunean (Prestakuntzarako oinarriko modulua, EJ, 1992).

Goian aipatutako mentalitate profesional amankomun hori benetako gertakizun bilakatzeko, lan-bilkurak egin beharko dira nahitaez. Bilkura horiek eraginkorrak izango dira baldin eta: mamirik badute, partaideren batek zuzendu eta koordinatzen baditu, aldeztu aurretik prestatzen badira, interesatuei helburu eta edukinei buruzko aurretiazko informazioa ematen bazaie, landuko den materiala luzatzen bazaie eta erabilgarritasun eta eraginkortasun-irizpideak kontuan hartuta ebaluatzen badira.

4.2. Ikuskera orohartzaileaz.

Ikuskera orohartzaile izenekoek ikasleentzat interesgarriak, esanguratsuak eta funtzionalak diren gai, arazo eta egoeren inguruan antolatzen dituzte curriculumeko edukinak. Ikuspuntu horretatik begiratuta, talde-gelan aurki daitezkeen hezkuntza-premia guztiei erantzuteko aukera ugari ematen dute, beraz.

Ez da komeni gainera aipatutako edukinak kostatu ala kostatu sartzea; kasu horretan interesgarriagoa izango litzateke edukin horiek jorratzeko bestelako bide osagarri batzuk erabiltzea.

Ondoren aipatutako ditugunak ikuskera orohartzailearen ildo beretik doazen lanerako metodo batzuk dira. Azken ohar bat: ikuskera horiek eta beste batzuk konbinatu behar dira ikasleekin lan egiteko bide benetan eraginkorrak finkatu nahi izanez gero.

- Interesguneak.

Edukinak ikasleen berezko premien inguruan egituratzean datza bide hau. Ardatz gisa programazio jakin bat har dezakegu, baina, zenbaitetan, programan sartu ez ditugun edukinei heltzeko, arestian esan dugunez, bestelako metodo osagarri batzuk erabili beharko ditugu nahitaez.

- Topikoak.

Topikoen bidez ikasleen hurbileko errealitatean jazotako gertakarietan lotutako edukinak lantzen dira. Edukin horiek oinarri gisa hartuta unitate didaktiko bat osa daiteke.

- Lanerako proiektuak.

Ikasleei planteaturiko problema baten inguruan egituratzen dira edukinak honakoan, partaidetza izugarri sustatzen delarik horrela, bai planifikazio-aldian eta baita iharduerak burutzeko unean ere.

Zenbait fase dute (hala nola, asmoa, prestaketa, burutzapena eta lanketa), eta inplikazio nahiz partaidetza-maila desberdinak ahalbidetzen dituzte. Bide hau erabilita ikasleen arteko elkarreragin ugari eta joriak planteatzen dira.

4.3. Irakaskuntza-ikaskuntza iharduereaz.

- Ikasten gozatzeko modua eman behar dute. Jolasak baliabide ezin hobeak gerta daitezke edukin-mota desberdinak lantzeko.

- Ikaskuntzak testuinguru funtzionaletan burutzeko modua eman behar dute, esanahiak askoz hobeto eskuratzen baitira premiazkoak badira eta praktikaren eta esperimentazioaren bitartez eskuratuz gero.
- Ikasleek lan egiteko eta ikasteko duten erritmoari egokitu behar zaizkio. Horretarako era malguan antolatu behar dira espazio-denborak.
- "Ezagutzazko gatazka" sortu behar dute, hots, ikasleen alde zuzentzeko ezagutzen oreka-eza eragin behar dute, hausnarketaren, ikerketaren edo eta esperimentazioaren bidez ezagutzazko eskemak berriz ere egituratu ahal izateko.
- Kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak jorratzeko modua eman behar dute, ikasleek gaitasun guzti-guztiak garatuko dituztela bermatzeko.
- Irakasle-taldeak errefortzurako edo zabalkuntzarako iharduerak aurrikusi behar ditu, ikasleen hezkuntza-premiei hobe erantzuteko asmoz eta ikasleei ikaskuntzan aurrera egiteko bultzadaxo bat emateko asmoz.

4.4. Lankidetzazko ikaskuntzaz.

Ikaskuntza-mota hori besteei laguntzeko eta berezitasunak onartu, errespetatu eta ulertzeko bideak sortzeko estrategia aparta da, azken batean hori baita derrigorrezko hezkuntzaren oinarritzako helburua (Lehen Hezkuntzako orientabide didaktikoak, MEC).

Lankidetzan arituz gero, taldeko kide guztiek eginkizun bat hartzen dute, eginkizun hori burutzen laguntzen dute eta guztiei dagozkie bertatik etorritako meritua.

Lankidetzazko ikaskuntzak ondorio positiboak ditu ezagutzazko prozesuetan, ikasleen arteko elkarreragin ugari ahalbidetzen baitu, zenbait ekintza edo egoera zehatz norbere buruaren aurrean eta besteen aurrean justifikatu behar dutelarik ikasleek.

Estrategia hori erabiliz gero, halaber, motibazioa izaugarri areagotzen da. Alde batetik, taldean burutzen denez, gozatzeko eta segurtasuna izateko modua dute ikasleek eta, bestetik, kontrola dezaketen zerbait bailitzan ikusten dute ikaskuntza.

Ezagutzei eta motibazioari eragin ez ezik, partaideen afektu eta sentimenduei ere zuzen-zuzenean eragiten die lankidetzan aritzeak (besteak diotena entzuten dute, besteen lekuan jartzen saiatzen dira, laguntza eman eta hartzen dute), talde bateko kide diren sentimendua areagotzen zaie, segurtasuna, indarra eta autoestimua ematen die.

Bestalde, lankidetzazko ikaskuntza errealitate bihurtzen hasi den heinean, ikasgeletan autonomia-maila handiagoa dago eta irakasleek denbora gehiago dute gehien behar dutenekin lan egiteko.

4.5. Kideen arteko ikaskuntzaz.

Betidanik pentsatu izan da kideen arteko harremanak kaltegarriak zirela irakaskuntza-ikaskuntza prozesua egoki burutzeko, eta horregatik baztergarrizat jo dira, ustez ezagutzek norabide bakar bat zutelakoan, hots, irakasleak (dakienak) ikasleari (ez dakienari) transmititzen zizkiolakoan.

Gaur egun, ordea, ikuspegi konstruktibista oinarri dugula, ikasleek euren ezagutza eratzeko prozesu gisa ulertzen dugu ikaskuntza, eta prozesu horretan guztiz ezinbestekoak dira elkarreaginak, bai irakasle-ikasleen artekoak eta baita kideen artekoak ere.

Sarritan, ikasleen arteko elkarreaginetan, batek bestearen ekintzak edo eta adimen-prozesuak gidatzen dituen azalpen nahiz adibideak ematen ditu, ikaskuntza esanguratsuak ahalbidetuz. Izan ere, ikasle horrek hezkuntza-prozesuaren bitartekari eginkizuna hartzen du bere gain.

Azken bi hamarkadaotan egindako ikerketek erakusten dutenez, ikasleen arteko harremanak eragin izugarria eta erabakiorra du zenbait gauza lortzeko, hala nola: gizarte-gaitasun eta trebetasunak eskuratzeko, joera erasokorrak kontrolatzeko, ezarritako arauak neurri handiagoan moldatzeko, egozentrismoa gainditzeko, norbere ikuspuntua arian-arian erlatibizatzeak, aspirazioak, eskolako errendimenduak eta, oro har, gizarteratze-prozesua areagotu eta bultzatzeko. (Johnson, 1981b).

Hori dela eta, curriculum diseinatu eta garatzerakoan, kideen arteko harremanak ahalbidetu eta sustatzea guztiz komenigarria da.

4.6. Ikasgelaren antolamenduaz.

*** Taldeak.**

Oro har, talde heterogeneoak egokiagoak izan ohi dira hezkuntza-premiak dituzten ikasleek elkarreaginak izan eta bertan parte har dezaten. Dena dela, zenbait kasutan, talde homogeneoak egitea komenigarriagoa gerta daiteke, denbora-epe jakin batean behintzat, irakasle-taldearen zuzeneko esku-hartzea (hizkuntzako zenbait edukin indartzea, bai ahoz eta baita idatziz ere,...) ezinbestekoa den edukinak ikasi ahal izateko, adibidez.

Talde-gela izango da ikasleak ziklo osoan izango duen erreferentea. Planteatzen diren edukin eta ihardueren arabera, ikasgeletan, kurtsoetan eta zikloan talde-mota desberdinak sortzeko modua izan behar dugu.

. Zenbaitetan bakarka lan egitea komeni da, ikasle bakoitzak ikasteko duen erritmoari eta estiloari egokitzeko bidea ematen baitigu bakarkako lanak.

. Bestetan, ordea, talde txikian lan egitea komeni da, prozedurazko eta jarrerazko edukinekin zerikusia duten iharduerak lantzeko egokia baita (problema ebazteko lanerako proiektuak egiteko, eta abarrerako egokia, alegia.).

. Talde handian lan egitea ere komeni da noizean behin, hala nola, gaiak aurkezteko, ezatabidak egiteko, motibazioa areagotzeko, alde zuzentzeko ezagutzen berri biltzeko, lanak aurkezteko nahiz irakurgaiak lantzeko orduan, proiektzio-emanaldietan eta abarretan.

*** Espazioak.**

Espazioa eta altzariak banatzeko orduan, mantenimendu-lanetan eta dekoratzerakoan parte hartzeak partaide izateko eta erantzukizunak bere gain hartzeko aukerak emango dizkio ikasleari, ikasgela berea ere badela sentitzeko bidea emango dio, azken batean.

Aniztasunari erantzun nahi izanez gero, ikasgelan modu malgutan banatu behar dira espazioak, zenbait unetan guztiak pertsona bati begira egoteko, bestetan taldean lan egiteko edo, are, talde txikiko lanak eta bakarkako lanak batera burutu ahal izateko moduan, hain zuzen ere.

*** Denborak.**

Lan egiteko eta ikasteko erritmoak asko eta desberdinak direnez, ikasgelako errealitateari egoki erantzun nahi badiogu, denborak egokitu beharko ditugu halaber. Gauzak horrela, ondokoak hartu beharko ditugu kontuan:

- Ikasleei euren denbora autonomia nahikoaz antolatzeko aukera eman behar diegula.
- Ikasleei zereginak hasi eta bukatzeko modua emango dieten antolamendu-motak pentsatu behar ditugula.
- Talde batean esku hartzen duten profesionalak koordinatuta egon behar dutela (tutorea, espezialistak, laguntzako irakaslea) probetxamendu hobea ahalbidetuko duten antolamendurako bideak bilatzeko (zenbait ihardueratan ikasle bakar batek bi ikasgela hartzeko, bestetan, berriz, ikasgela batean bi irakasle aritzeko, etab.).

Denbora ohizkoa ez den era batean (hots, orduz-ordu ez den era batean) antolatzea eta aldi berean gauza desberdinak egiteko modua ematea, ikasleei euren denbora kontrolatzen irakasteko tresna apartak izan ez ezik, aniztasunaren trataera ikaragarri errazten duten estrategiak ere badira.

4. Baliabideak.

Ikasgelan iharduera ugari burutzeko, espazioa eta denbora beste era batean antolatzeaz gain, baliabide ugari erabili beharko ditugu nahi eta nahi ez. Zenbait kasutan material arruntak moldatu beharko ditugu edo ikasleen hezkuntza-premien arabera materialak sortu. Egokitzapen horietariko asko ikastetxean bertan egin daitezke, talde pedagogikoa osatzen duten kideen laguntzaz eta horien erantzukizunpean.

Hona hemen baliabide didaktikoak erabiltzeko zenbait irizpide:

- . Maila desberdinetan eta arlo desberdinetan erabiltzeko modukoak, hots, balioanitzak izatea (mugikortasuna izan dezaten saiatzea).
- . Baliabideak eskuragarri egotea eta zentralizatuak izatea.
- . Baliabide didaktikoen artxiboa sortzea.
- . Ikasle guztiek baliabide guztiak erabil ditzaten ahalbidetzea (txikienei ere baliabide informatikoak erabiltzeko aukera ematea).
- . Ikasle guztiei baliabideen erabilpen eta mantenimenduaren erantzule direla aditzera ematea.

5.- UNITATE DIDAKTIKO BATEN ADIBIDE GISAKOA ETA IKASLE-TALDEAREN ARABERA EGIN DAITEZKEEN ALDAKETAK.

Unitate didaktikoa curriculumaren zehaztapen-prozesuan hirugarren eta azken maila da, gelako programakuntzaren oinarria, eta bertan ikasgela bateko ikasle guztientzat, denboraldi mugatu baterako, ikaskuntza proposamen zehatza eta osatua jasotzen da.

Aipatutako mailaraino zein motatako moldapenak egin daitezkeen adierazteagatik, jarraian doa diseinu posible bat non talde bateko ikasle goaren hezkuntz behar espezifiko desberdinak kontutan hartzen eta erantzun espezifikoak ematen saiatzen da.

Lehen Hezkuntzako 3. ziklorako (5.kurtsua) Gaztelania arloan kokatutako unitate didaktikoa da, eta gutxi gora behera 10en bat ordutan landurik izateko, non ikasle goak honako ezaugarri azpimarragarrienak aurkezten ditu:

Lehen Hezkuntzako 5. kurtsoko ikasgela da eta 21 ikasle dago bertan, 13 neska eta gainerakoak mutilak, binaka eserita, hiru ilada osatuz. Bakoitza nahi zuenarekin eseri denez, oso barnerakoia den mutil bat, Jontxu (a), bakar-bakarrik geratu da.

Maria, Aitor eta Edurnek (b) ez dute gaintu 2. zikloa, ahozko eta idatzizko diskurtsoen esanahia ulertzeko, bertako funtsezko informazioa sintetizatzeko eta komunikazio-asmo desberdinetara egokitutako ahozko nahiz idatzizko mezuak sortzeko eragozpenak baitituzte; estraineko biek, gainera, ez dute Matematika Arloa gaintu, idatzizko testuak ulertzeko dituzten eragozpenen erruz.

Bestalde, Eduardo eta Amaia (c), benetan azkarrak dira. Amaiak, batik bat, eragin handia du taldeko kideengan, guztiek nahi dute harekin, bai jolaserako eta baita gelako iharduerak burutzeko ere. Sarritan lan gehiago eskatzen diote irakasleari edo luzaroan egoten dira ezer egin gabe, gainerakoek egiteko agindu zaiena noiz bukatuko zain.

Normalean erabili ohi den lanerako metodoa ondokoa da: debora gehiena irakaslearen azalpenek hartzen dute, eta gero iharduerak burutzen dituzte ikasleek, oro har bakarka, eta noizean behin binaka.

- Arloa: Gaztelania .

- Zikloa: Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa, 5. kurtsoa.

- Programazio-unitate honetan inplikaturiko arloak: Natur, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezaguera eta Arte-Hezkuntza.

..... Unitate didaktikoa

- Denbora: 10 ordu.

ZK.	Helburu didaktikoak	ZK.	(a)	(b)	(c)	Egokitutako helburu didaktikoak
1	- Testu narratibo bateko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea.	1		*		- 3. edo eta 1. pertsonan kondaturiko testu narratibo bateko ideia nagusiak identifikatzea.
2	- Pertsonen arteko errespetuaren oinarri diren baloreak aurkitu eta preziatzea (maitasuna, justizia, demokrazia,...).	2				- Idem
3	- Besteren bati jazotako gertakari errealak nahiz asmatutakoak ahoz kondatzerakoan egitura egokia erabiltzea: protagonistak, lekuak, denbora, gertakizunak, (lehen, bitartean, gero); eta besteek hitzegiten dutenean entzuteko jarrera hartzea.	3		*		- Benetan jazotako gertakariei nahiz asmatutako gertakariei buruzko narrazioetan hiru atal handiak, hots, hasiera, mamia eta bukaera diskriminatzea eta besteek hitzegiten dutenean entzuteko jarrera izatea.
4	- Testu narratiboak antzematea eta sortzea, lehen aipatutako egiturari jarraituz.	4		*		- Testu narratiboak antzematea eta horrelakoak idazten hastea, beti ere egitura jakin bat kontuan hartuta (hasiera, mamia eta amaiera).
5	- Hitz konposatuak aztertzea eta eratzea eta testuinguru desberdinetan erabiltzea.	5		*		- Egoera ezberdinetan hitz konposatuak egoki erabiltzea.
6	- Komunikazio-sistema desberdinak diskriminatzea eta bakoitzean erabili ohi diren komunikazio-elementuak bereiztea.	6				- Idem
7	- Espainiako estatuko hizkuntz aniztasunaz ohartzea, hori errespetatzea eta preziatzea.	7				- Idem
8	- Norberak sortutako testuetan eta besteek sortutakoetan ortografi arauak aplikatu behar direla onartzea eta erruak zuzentzeko interesa izatea.	8				- Idem
9	- Hitzak bereizi eta sailkatzea, osatzen dituen silaba-kopurua kontuan hartuta.	9				- Idem
10	- Ahozko nahiz idatzizko testu narratiboak eta deskriptiboak bereiztea eta sortzea.	10				- Idem

- Arloa: Gaztelania.

- Zikloa: Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa, 5. kurtsoa.

- Programazio-unitatean inplikaturiko arloak: Natur, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezaguera eta Arte-Hezkuntza.

..... Unitate didaktikoa.

- Denbora: 10 ordu.

ZK.	Edukinak	ZK.	(a)	(b)	(c)	Egokitutako edukinak
1	- Ideien analisisa: Ahozko nahiz idatzizko narrazio bateko ideia nagusiak eta bigarren mailako ezagutza.	1		*		- Ideien analisisa: (3. edota 1go pertsonan) ikaslearen ulermen-mailari egokitutako ahozko nahiz idatzizko testu narrazio bateko ideia nagusiak ateratzea.
2	- Komunikapenean jarrera ireki eta errespetozkoa..	2				- Idem.
3	- Ahozko nahiz idatzizko egitura narrazioaren elementuak identifikatzea: protagonistak, lekuak, denbora, gertakizunak (lehen, bitartean, gero).	3		*		- 1.pertsonan egindako narrazioan (hasiera, mamia, amaiera).
	- Hitz sinpleak eta konposatuak aztertu, identifikatu, eratu eta erabiltzea.					
4	- Komunikatiboak diren forma eta elementu ezberdin identifikatzea:	4		*	*	- Konplexutasun-maila desberdineko hitz sinple eta konposatuak aztertu, identifikatu, eratu eta erabiltzea.
	. hitzekoa: ahozkoa, idatzizkoa					
5	. hitzez bestekoa: keinuak, seinaleak (ikusizkoak, entzunezkoak)	5				- Idem.
	. elementuak					
	- Espainiako estatuan hizkuntz aniztasuna dagoela onartzea.					
	- Estatuan hitzegiten diren hizkuntzek dakarten aniztasun eta aberastasuna baloratzea.					
	- Ortografi akatsak diskriminatzea, 2. zikloko edukina berriz jorratzea					
6	("b"/"v", "c"/"z", "g"/"j", "h", "g"/"gu")	6				- Idem.
7		7				- Idem.
8	- Hitzak silaba-kopuruaren arabera bereiztea eta sailkatzea (monosilaboak, bisilaboak, trisilaboak, polisilaboak).	8		*		- Oinarrizko ortografia birpasatzea (Testuen hasieran eta puntuaren ondoren letra majuskulak erabiltzea, "m""p" eta "b"ren aurretik, "c"/"z").
9	- Norberak nahiz besteek sortutako testuetan ortografi arauak aplikatu behar direla ohartzea eta erruak zuzentzeko interesa izatea.	9		*	*	- Hitzak silaba-kopuruaren arabera bereiztea eta sailkatzea, sinpleenetatik hasita konplexueneraino, hots, diptongoak eta hiatoak ageri diren hitzetaraino.
	- Ahozko nahiz idatzizko narrazioak eta deskripzioak.					- Idem.
10		10				
11		11		*	*	- Konplexutasun-maila desberdineko testu narrazioak eta deskriptiboak bereiztea, sailkatzea eta sortzea.

- Arloa: Gaztelania .

- Zikloa: Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa, 5. kurtsoa.

- Programazio-unitate honetan inplikaturiko arloak: Natur, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezaguera eta Arte-Hezkuntza.

..... Unitate didaktikoa.

- Denbora: 10 ordu.

ZK.	Iharduerak	ZK.	(a)	(b)	(c)	Iharduerak direla-eta, egindako aldaketak/kontuan hartu beharrekoak
1	- Testu desberdinak irakurtzea eta estrategia desberdinak erabiltzea ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak bereizteko (koadroak osatu, galderei erantzun, erantzun egokiena hautatu, etab).	1		*		- Iharduera berbera, alabaina honakoan honela burutu daiteke: . Bakarka, euren ulermen-mailari gehiago egokitzen zaizkion testuak erabilia. . Proposatutako testuak oinarri hartuta eta laguntzako irakaslearen laguntzaz. . Hiruzpalau ikaslek osatutako talde heterogeneotan, lankidetzari lehentasuna emanaz.
2	- Errespetua bultzatzeko ikasleen arteko harremanetan hartu ala saihestu beharreko jarrerak talde handian eztabaidatzea: asanblada, talde txikitan elkarlan, ozenki eginako irakurketak, etabar, ekintzak non errespetozko jarrerak eta portaerak jokuan ipini behar.	2	*	*		- Idem.
3	- Bakarka abentura bat asmatzea eta kondatzea, ondoko elementuak kontuan hartuz: protagonistak, lekuak, denbora, gertakizunak (lehen, bitartean, gero).	3		*		- Bakarka abentura bat asmatzea eta 1edo 3.pertsonan kondatzea, hasiera, mamia eta amaiera argi eta garbi bereiziz.
4	- Banaka galdera-sail bati erantzutea. Galdera-sail horretan gainontzekoei entzuteko kontuan izan beharreko jarrera positiboan berri ere bildu behar da. Ondoren, talde handian eztabaida bat egitea.	4				- Idem.
5	- Abentura bat asmatu eta idaztea, ondoko elementuak kontuan hartuz: protagonistak, lekuak, denbora, gertakizunak (lehen, bitartean, gero).	5		*		- Aukera bat baino gehiago dago, hona hemen: . Bakarka eta tutorearen nahiz laguntzako irakaslearen laguntzaz edo laguntzarik gabe, abentura bat asmatzea eta 1go edo 3. pertsonan idaztea, hasiera, mamia eta amaiera argi eta garbi bereiziz. . Talde txiki heterogeneotan lankidetzan aritu eta abentura bat asmatu eta idaztea, ondokoak kontuan hartuz: protagonistak, lekuak, denbora, gertakizunak (lehen, bitartean, gero). . Talde txiki homogeneotan eta laguntzako irakaslearen laguntzaz, nahiz kideen laguntzaz abentura bat idaztea, ondoko elementuak kontuan hartuz: protagonistak, lekuak, denbora, gertakizunak (lehen, bitartean, gero).
			*	*	*	
				*	*	

- Arloa: Gaztelania

- Zikloa: Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa, 5. kurtsoa.

- Programazio-unitatean inplikaturiko arloak: Natur, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezaguera eta Arte-Hezkuntza.

..... Unitate didaktikoa

- Denbora: 10 ordu.

ZK.	Iharduerak	ZK.	(a)	(b)	(c)	Iharduerak direla-eta, egindako aldaketak/kontuan hartu beharrekoak
6	- Hitz sinpleak behatzea eta mota desberdineko hitz konposatuak osatzea: izena + izena, aditza + izena.	6		*	*	- Lehen esandako gauza bera baina planteamendu irekiago bat kontuan hartuta burutzapen-maila bat baino gehiago ahalbidetzeko: . Hitz sinpleak eta konposatuak diskriminatzea . Hitz sinpleak oinarri hartuta hitz konposatuak osatzea . Hitz konposatuak egoki erabiltzea, testuinguru desberdinetan erabili ere
7	- Komunikazio-sistemak (hitzezkoa: ahozkoa, idatzizkoa; hitzez bestekoa: keinuak, seinaleak (ikusizkoak, entzunezkoak...) eta horiek osatzen dituzten elementuak (mezua, kanala, emailea, hartzailea, arautegia) bereiztea, eskenak eta komunikazio-sistemak erlazionatzea eta komunikazioa osatzen duten elementuak behatzea.	7	*			- Hiruzpalau kidek osatutako talde txiki heterogeneotan aritzea, non taldeak ikaskideen aurrean egindako lanaren emaitza azaldu eta justifikatu behar duen.
8	- Espainiako estatuko hizkuntzak hitzegiten diren zonekin erlazionatzea eta bertan kokatzea eta, halaber, hizkuntz aniztasunak duen garrantziaz aritzea eta eztabaidatzea.	8	*	*	*	- Zabalkuntzarako iharduera gisa, talde txikiak eratu eta zenbait komunikazio-sistema oinarritzat hartuta, egoera batzuk antzetzeko eska dakieke. - Idem.
9	- Ikasleek egindako testuak, grafiko, fitxa eta abarren bidez zuzendu zenbait ortografi akats arautzen dituen erregela ateratzeko ("b"/"v", "c"/"z", "g"/"j", "h", "g"/"gu").	9		*		- Ondokoei buruzko berariazko ortografi fitxak: Letra larriak jarri behar dira testuen hasieran, puntuen ondoren eta izen propioetan; "m" idatzi behar da "p" eta "b"ren aurrean; "z" eta "c"k soinu berbera dute baina bigarrena "e" eta "i"ren aurrean idazten da. Fitxa horiek ikastetxean landuko dira bakarka edo eta laguntzako irakaslearen laguntzaz, etxean ere landu daitezke.
10	- Zenbait hitz silabatan banatzea eta hitza silaba-kopuruaren arabera sailkatzea.	10	*	*	*	- Zenbait hitz silabatan banatzea eta hitzak silaba-kopuruaren arabera sailkatzea, hitzak mota askotarikoak eta konplexutasun-maila desberdinekoak izan daitezen saiatur (zuzenekoak, alderantzizkoak, lotuak, mistoak, diptongoak, hiatoak, etab.), burutzapen-maila desberdinak ahalbidetu behar dituztela kontuan hartuta eta talde-mota desberdinak osatuz (bikoteak, talde txikiak, bakarka, etab.).

- Arloa: Gaztelania.

- Zikloa: Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa, 5. kurtsoa.

- Programazio-unitatean inplikaturiko arloak: Natur, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezaguera eta Arte-Hezkuntza.

..... Unitate didaktikoa.

- Denbora: 10 ordu.

ZK.	Iharduerak	ZK.	(a)	(b)	(c)	Iharduerak direla-eta egindako aldaketak/kontuan izan beharrekoak
11	- "Los derechos de los niños y niñas" izeneko dokumentua irakurtzea eta pertsonen arteko errespetuarekin zerikusia duten hiru hitz garrantzitsu ateratzea, eta okume gainean marraztea, moztea eta margotzea.	11	*	*	*	- Iharduera bera baina talde txiki heterogeneotan, lankidetzari lehentasuna emanez.
12	- Ahozko nahiz idatzizko testu narratibo eta deskriptiboak sailkatzea eta sortzea, emandako jarraipide batzuen arabera.	12		*	*	- Testu narratibo eta deskriptibo bat baino gehiago eta konplexutasun-maila desberdinekoak aukeratu behar dira, diskriminazio-lana ikasle guztiek burutu ahal izateko. Zentzu horretan bertan, testuak sortzeko jarraipideak direla-eta, konplexutasun-maila desberdinak aurrikusi behar dira, halaber. (Ez da gauza bera ikasle bakoitzak bere ama fisikoki deskribatzeko eskatzea ala pertsonaia nagusiak 25 urte zitueneko narrazio bat egiteko esatea eta fisikoki deskribatzeko eskatzea).

- Arloa: Gaztelania.

- Zikloa: Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa, 5. kurtsoa.

- Programazio-unitatean inplikaturiko arloak: Natur, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezaguera eta Arte-Hezkuntza.

..... Unitate didaktikoa.

- Denbora: 10 ordu.

ZK.	Ebaluazioa	ZK.	(a)	(b)	(c)	Iharduerak direla-eta egindako aldaketak/kontuan izan beharrekoak
1	- Irakurrizko ulermena. Testu bat irakurri, ahoz nahiz idatziz erantzun beharko dituen galdera batzuk oinarri gisa hartuta, testu horretako ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak ulertu ote dituzten zehaztea.	1		*		- Ahoz nahiz idatziz emandako erantzunen arabera, ikasleen mailari egokitutako testu bateko ideia nagusiak ulertu ote dituzten zehaztea.
2	- Behaketa zenbait baliabideen bidez (kontrol zerrendak, baloratzeko eskalak), besteei entzuteko jarrerak autoebaluatzea (bakarka).	2	*			- Behaketa zenbait baliabideen bidez (kontrol zerrenda, baloratzeko eskalak), besteei diotena entzuteko jarreraren autoebaluazioa (bakarka) eta koebaluazioa (talde txikietan).
3	- Narrazioaren ondoko elementuak kontuna hartuta: protagonistak, lekuak, denbora, gertakizunak (lehen, bitartean, gero), abentura bat asmatzea eta 3.pertsona konderatzea, ahoz nahiz idatziz.	3		*		- Narrazioaren ondoko elementuak aintzat hartuta: hasiera, mamia eta amaiera, abentura bat asmatzea eta 1. pertsona konderatzea, ahoz nahiz idatziz.
4	- Ondoko ariketak burutzea: hitz sinpleak eta konposatuak bereiztea, hitz sinpleak oinarri gisa hartuta hitz konposatuak osatzea, hitz konposatuak hartu eta hutsuneak betetzea, hitz konposatuen esanahia azaltzea, testu bat asmatzea eta bertan hitz konposatuak erabiltzea, koherentzia erabili ere.	4				- Idem.
5	- Irudi desberdinak oinarritzat hartuta, komunikazio-sistemak eta bertako elementuak identifikatzea.	5				- Idem.
6	- Estatuan dauden hizkuntzei eta hitzegiten dituen zonei buruzko dossier txikia.	6	*			- Idem, hala ere zenbait aukera dago kasu honetan: . Talde txiki heterogeneotan egin daiteke . Bakarka nahiz talde homogeneotan egin daiteke, gehien behar dutenei laguntza emanez
7	- Ahoz eta idatziz hitz bateko silabak bereiztea, hitzak silaba-kopuruaren arabera sailkatzea.	7		*	*	- Ahoz edo eta idatziz hitz bateko silabak bereiztea eta hitzak silaba-kopuruaren arabera sailkatzea, hitzak mota askotarikoak eta konplexutasun-maila desberdinekoak izan daitezela saiatuz.
8	- Aldagaiak kontuan izanda (hots, narratiboa-deskriptiboa) (ahozkoa-idatzia), ahoz emandako edo eta adierazitako testu batzuk sailkatzea.	8				- Idem

6.- BIBLIOGRAFIA ETA AIPAMENAK

- ANTÚNEZ S. ETA BESTE BATZUK (1992) "Del proyecto educativo de centro a la programación de aula". Graó Argitaletxea. Bartzelona.
- BLANCO R. "La respuesta a la diversidad y las intenciones educativas". Aula, 10. zk.
- CARMEN L. DEL, ETA ZABALA A. (1991). "Guía Para La Elaboración, seguimiento y valoración de Proyectos Curriculares de Centro. Madril. Cide.
- COLL C. (1987) "Psicología y currículum. Una aproximación psicopedagógica a la elaboración del currículum escolar". Bartzelona. Laia.
- DOLZ M^a D. ETA MOLTÓ P. "Vías y medidas de atención a la diversidad en la ESO". Aula, 12. zk.
- GARCÍA J. ETA GONZÁLEZ D. (1993) "Cómo enseñar en la educación secundaria". EOS Argitaletxea. Madril.
- GARCÍA J. (1993). "Guía para realizar adaptaciones curriculares". EOS Argitaletxea. Madril.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (1989). "Eskola muinbakar eta integratzailea" Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (1992). "Euskal Autonomi Elkarteko Oinarritzko Curriculum-Diseinua" Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (1992). "Curriculum Garapenerako dekretua. Lehen Hezkuntza". Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (1992). "Dokumentuak. Prestakuntzarako Oinarritzko Modulua" Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- GONZÁLEZ M^a A. "La organización del centro al servicio de la respuesta a la diversidad". Aula, 10. zk.
- HEZKUNTZA ETA ZIENTZI MINISTRARITZA. "Orientaciones didácticas. Primaria". Madril.
- RODRÍGUEZ V. "La metodología y el tratamiento de la diversidad en el PCC". Aula, 10. zk.
- TIRADO V. ETA FERNÁNDEZ M. "Decisiones sobre la diversidad". Cuadernos de pedagogía, 223. ZK.